



ARGIA

Ainara Gorostiaga,
Marilo Gorostiaga eta
Gloria Bosque

Nafarroako torturatuak aitortza eta justizia eske

22-27. orriak

#2.742 | 2021/07/25 | 3,90 €



**“Asko erabiliko
dugun arropa
erosi behar dugu”**

12 | ALAZNE JUANIZ



**‘Ongi etorri eskolara’:
Bizikidetz
sustatzeko egitasmoa**

34 | EUSKARA



**“Ahal den guztia
egingo dugu
mainstreamaren aurka”**

42 | ITAXERS

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #265

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



DEPORTAZIOA UR AZALERA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | IKER IRAOLA
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | ENEKO GORRI
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | FERMIN ERBITI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | PERTSONAIA

Alazne Juaniz elkarrizketatu du Reyes Ilintxetak. Sortzailea, artisaua eta jostuna hitzekin definitzen du bere burua eta arropa ekologikoaz mintzo zaigu; nola egiten duen lan eta zein den arropa erosteko modu ekologikoa "Gutxi erosi eta asko erabili", azoketan saltzen duen Juanizen hitzetan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Madagaskarreko goseteari ez diogu so egiten, klima justizia ez dugulako akuilu

Jenofa Berhokoirigoin

22 | POLITIKA

Aitortza eza: Bigarren tortura hori

Xabier Letona

28 | KIROLA | ENEKO LAMBREA GIMNASTA

Kirol honen zailtasunari, aurreiritziak batzen zaizkio

Eñaut Agirrebengoa

32 | IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

Ongi Biziz borroken sua piztu

Zigor Olabarria

34 | EUSKARA | "ONGI ETORRI ESKOLARA"

Nola utzi bizkarra emateari

Onintza Irureta

42 | KULTURA | "TATXERS"

"Amaitu da betiko musikaren hegemonia"

Kepa Matxain

46 | KULTURA

E-1027: Modernismo ez-heroikoa

Jone Alaitz Uriarte

52 | ARGI-KONTRA | TÀNIA BALLÓ ETA GONZALO BERGER

"Gerra Zibilaren kontakizunean emakumeei autonomia politiko falta egotzi zaie historikoki"

Leire Regadas

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lamezta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako presekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gertutasuna

Horrelako argazkiak eguneroko ogi dira. Horrelako zenbat ikusi ote dugu albistegietan irudi "ikusgarrietarako" tartean. "Ai gajoak!". Oraingoan ordea, bada alderik: protagonisten azala ez da iluna eta suntsitutakoa gure etxea izan zitekeen. Eta orduan, bai, larritzen gaitu. AEBetan eta Kanadan izandako bero-boladaren ondoren, Europa erdialdean horrelako hondamendi bat. "Hirugarren munduko zerbait" zena gertu sentitzeak kezka sortzen du. Gizakiak ingurunean eragindako aldaketek kliman ezezik gure bizitzetan eraginik izan dezakeela pentsatzeraino? Etorkizun hurbilean gure bizimodu jasangarria, bizigarria, ote den birplanteatzeraino? Irudia: Bad Neuenahr-Ahrweiler, Alemania.



MOTZEAN

EAEko jatetxeek hiru astez gorde beharko dituzte bezeroen kontaktu datuak. Koronabirus kasuren bat agertuz gero, osasun zerbitzuek bezeroen datuak eskatu ahal izango dizkiete establezimenduei.

Maskaradak emango dituzte Barkoxeko gazteek uda honetan. Pandemiak ez du hauek ospatzeko aukerarik eman azken neguan, beraz, uztailaren 31n hasita egingo dituzte.

Tubacexek 129 beharginei lanera bueltatzea debekatu die, EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiaren kontra. Amurrio eta Laudioko lantokietako beharginei soldata ordainduko diete.

Jaizkibel konpainia parekideak adierazi du prest dagoela Hondarribiko alardearen formatu tradizionalen parte hartzeko. 2022tik aurrera, alardeko 22. konpainia izateko eskaria egin du.

Mozal Legea aplikatuta 2.000 euroko isuna jarri diete Sukar Horiako kideei. Iaz ekintza burutu zuten, Jaurlaritzaren politika ekozidak salatuz eta trantsizio ekologikoa aldarrikatuz.



Macronen azken neurriekin kexu

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bi neurrik dute zeresan gehien sortu: batetik, *pass sanitaire* deitu osasun pasea beharrezko jartzea eguneroko sozializazio gune askotan; eta bestetik, osasun eta zaintza arloko langile eta laguntzaileei txertoa derrigortzea. Bizitza pribatuaren errespetua eta herritarren arteko berdintasuna zangopilaturik direla dio hainbatek.

Bere horretan *pass sanitaire* edo osasun pasea ez da ilegala: "Bizitza pribatuaren errespetua eta datu pertsonalen babesa bermatzen dituzten eskubideei ez die modu larrian eragiten", Frantziako Estatu Kontseiluaren arabera. Uztailaren 6ko epaia da, La Quadrature du Net elkarteak jarri salaketari segi plazaraturikoa. "Interes publikoaren izenean" bideraturik, osasun pasea legala dela argitzen du auzitegiak, zehaztuz hala ere, ez dituela "eguneroko eginbeharrak hunkitzen" –maiatzaren 31ko legeak "elkarretaratze handietarako, aisialdietarako, ferietarako eta lan arloko elkarretaratzeendako" finkatzen zuen baldintza-. Baina hortik gutxira, uztailaren 12an Emmanuel Macron Frantziako presidentek are zabalago bihurtu zuen osasun pasearen baldintza, aldi honetan bai eguneroko eginbeharretara bideratuz: taberna, jatetxe, garraio publiko ala beste. Hori horrela, baliteke, giza eskubideen izenean, COVID-19ari aurre egiteko neurri berriak auzitegira eramatea eta bertan argitzea honen legalitatea. Osasun paseari baino gehiago, hau exijitzen den esparruari begiratuko lukete auzitegian.

Gaitza pasatu izana, txertoa hartu izana edo aitzineko egunetan egin testan negatibo eman izana zehaztu beharko du dokumentuak, eta hori ez bada horrela, herritarrak ezingo du egon zainduriko edo kontrolaturiko espazioan. Herritar multzo baten haserrea piztu du neurriak, honen ustetan –txertatu nahi ala ez nahi– behartze hau norberaren askatasunen eta eskubideen aurka doalako.

TXERTOIA BEHATURIK OSASUN ARLOAN ETA ZAINTZAN

Herritar batzuek ez dute hauturik ukanen: irailaren 15etik aitzina –bai ala bai– txertatu beharko dute osasun arloko eta zaintzaren esparruko langile eta laguntzaileek. Errefusatu gero, ezingo dute lanik egin eta ez dute soldata jasoko. Eztabaida sortu du neurri horrek ere, behartzea ez dutelako guztiek begi onez ikusten. Are gehiago, urte bat eta erdiz, buru-belarri eta baldintza txarretan COVID-19ari aurre egiten aritu ondoan, behartze horrek batzuen kexua areagotu egin du. Zehaztekoa da ere urteetako austeritate politikari COVID-19aren izurriteak eragin lan karga gehiturik, Ipar Euskal Herriko eta orokorki Frantziako erizainen moralala apal dela eta betekizun hau aitzin ere nekea eta haserrea sendi zirela osasunaren sektorean.

Bidaiari etxezalea



ARITZ GALARRAGA

Nire egiten dut Claude Lévi-Straussek bere libururik entzutetsuenean, *Tropiko tristeak*, idatzi zuen lehen esaldia: “Gorrotu ditut bidaiak eta esploratzaileak”. Baina uda garaia iritsi eta areagotu egiten da inora bidaiatzeko irritsa, bazueta presioa: mundu guztia ihes eta ez zara zu izango tokian kieto geratuko den inozoa. Zeri buruz hitz egingo duzu gero gainera, behin uda akituta, ea inoiz ezdakitnon egon ote zaren galdetzen badizute. Urteek, eta urteei lotutako irakurketek ematen duten egonariarekin, ordea, eta lasai asko uda etxean pasata, kapaz izango zara egon ez zaren lekuez mintzatzeko. Batez ere Pierre Bayarden liburu ezin utilago bat, *Nola hitz egin egon gabeko lekuez?* irakurtzen baduzu.

Bai, ze nik esango banizu leku bati buruz hitz egiteko biderik onena norbere etxean geratzea dela, bada, agian ez zenidake sinetsiko, baina Bayardek dio, lekuan berean egoteak ez dizula ziurtatzen leku horrekiko ezagutza handiagoa. Leku bat ezagutzea edo leku bati buruz idaztea fisikoki leku horretan egon edo ez egotearekin nahasi behar ez diren lanak baitira. Leku bati buruz idazterakoan imajinazioak eta hausnarketak dute garrantzia, eta oinarritzakoa da kontakizunaren indar narratiboa. Akaso emaitza ez da izango leku autentikoa, baina izan daiteke leku horren esentzia, leku horrek iruditeria komunean haragiztatzen duena. Leku baten egia lekuan berean ez balego bezala. Alegia, besteari zutaz hitz egitean, eta ez leku errealez, orduan geundek gertuen lekuak ezagutzetik eta besteei ezagutzera ematetik.

Filosofoiari gertatzen zitzaiona gertatzen zait niri ere: eguneroko paseoan, leku ezagunetan, aukera gehiago daukadala bestea aurkitzeko, eta ez nigandik sobera urruneko bidaietan. Izan ere, bada munduarekiko egia modu bat, bidaiari etxezaleak agerian uzten duena. Prest naiz udatik bueltan, hartara, fisikoki egingo ez ditudan bidaia guztiak zuei kontatzeko. ●



ADUR

“ESAN ZIDATEN PRESTATZEKO, EZ NINTZELA AMA IZANGO”

SAIOA AGIRRE, 13/13 SUMARIOAN AUZIPETUA

Euskal presoen abokatu eta presoen aldeko mugimenduaren parte izandako zazpi pertsonaren aurkako epaiketa ari dira egiten Espainiako Auzitegi Nazionalean. “Poltsa bat jarri zidaten buruan, eta arrastaka eraman ninduten galdeketa gela batera. Hormaren kontra jarri ninduten. Galdetu zidaten ea ba al nekien zergatik nengoen hor; ezetz esatean, kolpe bat jo zidaten buruan. Berrito galdetu zidaten, berrito jo ninduten. Arropa kentzen hasi ziren. Erresistentzia jarri nuenez, joka hasi ziren. Biluzik nengoen. Ariketa fisikoak egitera behartu ninduten; atximurka egiten zidaten titiburuetan. Bagina birritan ukitu zidaten. Zigarroaren kea nire poltsaren barrura bota zidaten”. 2021/07/14



Arbonako okupazioa: espekulazioa eta politika



JUAN MARI ARREGI

par Euskal Herria kapitalismoak sustatutako higiezin espekulazioaren xede da duela urte askotatik hona, turismorako paradisu bihurtzeko helburuz. Politika horrek ekarri du laborantza, abeltzaintza eta lurra modu jasangarrian lantzeko jarduera oro sarritan bertan behera uztea, eta horregatik herritar askok -batez ere gazteek- emigratu egin behar izan dute.

Testuinguru horretan kokatu behar da Arbonan duela zenbait astetik eginen ari diren borroka, laborantzarako lurrik metatu eta horiekin espekulatzearen aurka. ELB sindikatua eta Lurzaindia lur horiek okupatzen ari dira -baita bi-tartekarien bulegoak ere-, laborantza lur bezala mantendu ez baizik haiekin espekulatzeko interesa duen pertsona bati saldutakoak.

Eremuak biltzen du eraberritzen ari diren etxe bat eta 15 hektarea pasatxo-ko laborantzarako lur saila: 3,15 milioi euroren truke saldu nahi diote, ez laboraria den ez Euskal Herrian bizi den suitzar erretretadun boteretsu bati. Prezio hori, jakina, eskuraezina da laborari batentzat, laborantzan jardun nahi badu.

Okupazio horiekin batera, herritarren mobilizazioak eta laborantzarekin zerikusia duten ekimenak eta ospakizunak egin dira, salatzen laborantzarako lurren eta baserrien salmentak gora egin duela, eskandaluzkoak diren prezioetan, espekulatzeko helburu hutsez.

Baina, horrez gain, eskualde eta kantonamendu hauteskundeetarako hautagaien, agintari politikoen eta herri mugimenduen babesa behar dute, eta hori lortu nahian dabilta okupazioan parte hartzen ari direnak. Izan ere, orain, espekulazio hori galaraziko duten eta Euskal Herrian bizitzeko eta lan egiteko aukera emango duten erabaki politikoak hartu behar dira. ●

Sarea herritartu

AXIER LOPEZ

Informazio teknologia gure burua nola egituratzen dugun ikusteko isla ona da. Internet deitzen duguna, ehunka milioi pertsona elkarrekin konektatzea lortu eta komunikazioari eta harremanak izateko moduari buruz dugun pertzepzioa aldatzea ahalbidetu duen lehen egitura handia da. Baina sistema hau, oso erabilia eta beharrezkoa izan arren, hierarkizatuta dago, erraizetik.

Interneten arkitektura osatzen duten geruza gehienak enpresa pribatu handien jabe dira, azpiegitura fisiko eta logikoen eta edukiaren monopolioa dutenenak. Horien paradigma: Google. Gainera, gogoratu behar da azpiegitura asko -EAEko zuntz

optikoaren sarea, esaterako- diru publikoz ordaindu zirela, ondoren haren ustiapena pribatizatzeke, Eusko Jaurlaritzak Euskaltelekin egin zuen bezala. Telekomunikazioarako oinarritzko sareak hedatzeko ekimen publikoa zena hasieran -zuntz optikoaren bidezko telefonian aitzindari-, urte batzuen buruan pribatizatuta, burtsara salduta eta, berriki, euskal esparruaren kontrolatik kanpo amaitu du, Euskaltel Taldearen kapitalaren %100aren gainean Meinrad Spenger austriarrak zuzentzen duen MasMovil-en EEP-aren ostean.

Burujabetza teknologikoaren aldeko mugimenduek ondorengo Internet sustatzen dute: deszentralizatua, askea -komunitatearen esku, ez enpresena- eta neutroa -bi abiaduratako sarea saihesteko, azkarra aberatsentzat eta gainerakoentzat soberakina-. Subiranotasun teknologikoa tresna praktikoa da sarea deszentralizatzeke, baina, batez ere, sakoneko mamiari heltzeko: boterearen eta ezagutzaren demokratizazioa. Bide horretan pausu garrantzitsua da sarearen jabetza eta gobernantza gertuko komunitatearen esku uztea, azpiegitura fisikotik hasita.

Teknologian burujabetzaren alde apustu egitea oinarritzko azpiegiturak nola gobernatu erabakitzea da. Horregatik da garrantzitsua gaiari gertuko eremutik heltzea, eta geure buruari galdetzea telekomunikazioetarako sarbide duina nola berma diezaiekegun auzokide edo herritar guztiei. Jakina, horrek inbertsio publikoa behar du, azpiegiturak publiko egin eta herritarrek zuzenean hitza eta botoa izango dituzten ereduak sortzeko. Lehiaren logikatik kanpo baldintza -estaldura, abiadura, prezioa, arreta- duinak bermatuko dituzten ekimenak, elkarlana oinarri, debekurik gabekoak -parte hartu nahi duten kooperatiba eta enpresa orori irekita-. Zorionez, bide horretan urratsak ematen ari dira Euskal Herrian. Azkena, Oñatin. ●



"Internet gustuko dut nire herria gustatzen zaidan bezalaxe: libre eta irekia" Argazkia: AAP

Zumarragak ez du luzatuko ura kudeatzeko zuen kontratua

URKO APAOLAZA AVILA

Zumarragako Udal Plenoak Aquarebe enpresarekin zuen kontratua etetea erabaki du, kontu hartzailearen txosten batek hala aholkatuta. Onura Publikoa plataformak uraren kudeaketa munizipalizatzeko exijitu du, Zumarraga eta Urretxu baitira oinarritzko baliabide hori zerbitzu pribatu baten bidez eskaintzen duten Gipuzkoako udalerrri bakarrak.

EGOERA

Suez multinazionalarena den Aquarebe enpresaren bidez kudeatzen da ura Zumarraga eta Urretxun 2007tik. Orain, Zumarragako Udalak sinaturik zuen bost urterako kontratua salatu eta ez luzatzea erabaki dute.

JARRERAK

Mikel Serrano PSE-EEko alkatearen ustez Aquarebek zerbitzu "bikaina" eskaini du orain arte. Oposizioan dauden EH Bildu eta Elkarrekin Zumarragako taldeek aldiz, enpresaren "abusua" salatu dute eta hemen-dik aurrera kudeaketa publikorako urrats tekniko gehiago eman behar-ko lireratekeela diote. Gogorarazi dute uraren kontsumoa %20 jaitxi den arren, enpresaren irabaziak %32 igo direla azken urteetan.



LEGORRETA KO UDALA

LEHEN BIZIKLETA PARKE URBANOA


LEGORRETA. Euskal Herriko lehen bizikleta parke urbanoa egin dute Legorretan. Xendapedalak du izena eta 3.500 metro koadro ditu. Adin eta maila guztientzako gunea da, 3 urteko haurretatik hasi eta BMX, XC, enduro, jauzi zein jaitziera modalitateak praktikatzen dituzten goi mailako kirolarientzako.

GENOZIDIOA

160

hilobi gehiago aurkitu dituzte joan den astean

Kanadako ume indigenentzako barnetegia izandakoan. Halako barnetegietan **1.100** hilobitik gora aurkitu dituzte dagoeneko. Hamarkadatan zehar, milaka haur indigena euren familiengandik banandu eta eskola berezietan sartu zituzten, Europako kolonialisten tradizio eta ohiturak barneratzera behartzeko.



EUSKARA. Ipar Euskal Herriko 29 udalerririk sinatu dute hizkuntza gutxituen tokiko ituna. Euskara bultzatzeko 49 neurri proposatu dituzte Tokiko Xarta izeneko hitzarmenean. Europako Kontseiluak udan emango dio oniritzia, eta abenduaren 3an izenpetuko dute ofizialki.



HONDAKINAK. Uztailearen 3tik aurrera ezin da erabilera bakarreko plastikozko produkturik saldu Nafarroan. Berez, Europa osoan sartu da indarrean EBren zuzentaraua, baina estatuek transposizioa egin gabe daukate; Nafarroako Gobernuaren zuzentzu horretan aitzindaria izan da.



DISKRIMINAZIOA. Bikotekiderik gabe guraso direnei amatasun baimena baino ez dagokie Hego Euskal Herrian, umea duten bikoteek epe luzeagoa eskaini diezaioketenean haurra lehen hilabeteetan zaintzeari. Diskriminatzailea eta jaioberrien kaltetan dela salatu dute.

MADAGASKARREKO GOSETEARI EZ DIOGU SO EGITEN, KLIMA JUSTIZIA EZ DUGULAKO AKUILU

Ekainaren 23an ukan genuen IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen azken txostenaren berri, alarma gorria baino gehiago beltza pitzaraziz: ez badugu berehala aldaketa drastikorik bideratzen, bukatuko da gurea. Klima aldaketaren eraginez idortek eta gosetek gaiztotuko eta emendatuko direla abisatzen dute zientifikoek. Halabeharra edo, une berean Kanadan zein Madagaskarren sekulako idortea pairatzen zuten, batean –Madagaskarren– bestean ez bezala, gosetea eta gosez hiltzeak ondorioztatuz. Baina gu, mendebaldetarrok, Kanadari begira gara, klima justizia ez dugulako helburuen artean eta arlo horretan ere ez dugulako dekolonizaturik gure jarrera. Klima larrialdian ere pobreenak dira gehien kaltetuak eta hori kontutan hartzeari deitzen zaio klima justizia.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Madagaskarren jarraian bizitu idortek gosetea eragin dute. Familiak sufritzen dute eta jende anitz gosez hiltzen ari da. Ez da gerlarengatik ezta gatazkengatik ere, baizik eta klima aldaketarengatik. Munduko eskualde honek ez du ezertan klima aldaketa ondorioztatu, eta alta, honek du prezioa pagatzen”. Horrela mintzo da David Beasley Munduko Elikadura Programaren zuzendaria. “Krisi ikusezin” gisa definitzen du Afrikaren hegoekialdeko irlan gertatzen ari dena. Ikusezina begiraten ez dionarentzat, begirada harantza luzatuz gero, egoera deigarria eta larria delako: 1,14 milioi herritar dira gosez, eta 500.000 madagaskartarrek dute gosetea pairatuko ondoko hilabeteetan. Milaka familiek ihes egin dute jada, elikagai bila –klima errefuxiatuen errealitatea ez da gehiago gerorako kontua-. “Hilabeteak bizirauten dutela kaktus gorrien fruitu gordinak, hosto basak eta otiak janez. Ezin dugu ezikusiarrena egiten segitu”.

Bizkitartean nazioartea Kanadako tenperatura altuei eta sute ikaragarriari begira dugu. Baina funtsean, arazo bera bizi dute bi aldeetan, bata munduaren Iparrean –gurean, gure arreta piztuz–, besteak, munduaren Hegoan –guretik urrun-. “Klima larrialdiak eragindako lehen gosete” gisa aurkeztua da madagaskartarrena. 2020ko maiatzaz geroztik dabilta goseteari aurre egin nahian, nazioartean ezaxolakeriaren erdian. Oinarrian, batetik idortea eta bestetik, deforestazioak eragindako

lur-higadurak eta hondar-tenpestak –azken honek estaltzen eta beraz galarazten dizkietela dituzten nekazal ekoizpen bakarrak-. Ideia bat ukateko, abendua eta otsailaren artean ez dute euri tanta bakar bat ere ukan, printzipioz, euri-sasoia dute-larik garai hau.

KANADAN ERE ARAZO BERA

Kanadakoari sakonki begiratzeari ez dute interesik *mainstream* komunikabideek, klima aldaketaren gaia mahaigaineratzen digulako, kausei, ondorioei eta aldaketei begiratzera behartuz. Alta, xehekiago so eginez gero, laster ohartzeko gara idortek jaki ekoizpenak kalteturik dituela Kanadan ere bai. *Radio Canada* komunikabideak plazaratu *Canicule et sécheresse, les agriculteurs de l'Ouest en payent le prix* (“Berote handia eta idortea, Mendebaldeko nekazariak pagatzen dute prezioa”) artikuluan datu esanguratsuak agertzen dira: aurtengo AEBetako gari ekoizpenean %20 bakarrik da “kalitate onekoa”, iaz %70 zenean; koltza tona 800 dolarretan salerosten zen ekaina bukaeran, 1982az geroztik ez zen hain gora izan prezioa. Bertako laborariak ere kezkatuak dira: “Lurra idorra delarik ezer ez da hazten. Ura behar dugu bizitzeko, eta urrik gabe ezer ez da hazten”. Horrela dabilta aurtun, haziak usaian baino barnerago ereinez, barnerago lurra doi bat hezea izanen denaren esperantzarekin. Baina laborariez gain, edozein herritar da kaltetua, ur erreserbak ttipiturik uraren kontsumoa apaldu

beharrean delako eta jakiak garestiago pagatu beharrean ere delako. Baina Kanada ez da Madagaskar, ez mundu mailako kokapen geopolitikoan, ez eta ere errealitate sozioekonomikoari dagokionez; eta horrek egiten du gosetea ez dutela oraindik bizi.

Testuinguru horretan agertu zitzaigun ekainaren 23an IPCC (Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea) egituraren txostena AFP Frantziako prentsa agentziak filtraturikoa, ondoko abisua plazaratuz: “Lurreko bizitza berrituko da, gizateria ez”. Argiki mintzo dira zientifikoak eta ez dira itxaropentsu: “hamarkada honetan” ez badugu aldaketa drastikorik bideratzen, apokaliptikoa ukanen dugu biharra. Funtsean, 4.000 orriko txostenean idortek eta goseteaz mintzo dira luze eta zabal: “420 milioi pertsona gehiagok pasako dute bero handia, baldin eta berotze globala +2 °C-koa bada +1,5 °C-koa izan beharrean. Zehazkiago, 1,7 mila milioi lagun gehiago egon dira bero handien eraginpean, 420 milioi muturreko tenperaturetan eta 65 milioi dute bost urtean behin ohiz kanpoko kanikula bizituko”. Oroit gara, industriaurreko garaiarekin alderatuta, tenperatura emendioa 2 °C-ra mugatzeko helburua finkatzen duela Parisko 2015eko akordioak, idealean +1,5 °C-ra mugatzeko asmoarekin. Hots, duela sei urte +2 °C-ko heina bizigarri ikusten bazuen IPCCek, aldi honetan, +1,5 °C-koa du beharrezkotzat, “hortik gorago, ondorio latzak eta batzuetan itzulezinak pairatuko ditugulako”.



KLIMA ALDAKETAREN EMAITZA

klima larrialdiak eragindako lehen gosete gisa definitua da madagaskartarrek bizi duten gosetea. Oinarrian, idortea eta honen oinarrian klima aldaketa... alta, berotegi gasen isurketa guti eragiten du Afrikako irla honek.

KLIMA JUSTIZIA, EZINBESTEKOA

Munduko edozein lurraldek du idortea pairatzeko arriskua, Oxford Unibertsitateko Friederike Otto ikerlariak *Reporterre*-i azaltzen dionaz: "Ez da salbu den gune geografikorik; edonon gertatu daiteke, kontua da, bero errekorrez mintzo garelara Ipar Amerikan gertatzen denean, ez eta Pakistan, Iran edota Afrikako herri batean dugunean".


Bero handi horiek gosetea dakarte: Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen arabera gosetearen arrazoi nagusien artean dugu orain klima aldaketa, gerla eta kolpe ekonomikoekin batera. Hemendik 60 urtera 600 milioi lagun gehiagok dute gosetea pasako, klima larrialdiaren eraginez. Maleruski beste behin ere Hegoko herriak dira lehen lerroan izanen: 180 milioi lagun izanen dira "elikapen eskas kro-

nikoan" hemendik 30 urtera, hauen %80 Afrika eta hegoekialdeko Asian izanki. Ur eskasian ere, bistan denez. Baina hau ez da albistea, jada IPCCren 2014ko txostenean munduko gobernuak ohartarazten zieten klima aldaketak Iparraren eta Hegoaren arteko ezberdintasunak areagotzen dituela. Lehen aldikoz pobrezia buruzko kapitulua gehitu zuten txostenean, nonbait ohartaraziz zientifikoa bezainbait politikoa ere dela klimaren gaia.

Horregatik dabilta geroz eta gehiago "klima justizia" terminoa erabiltzen, "klima aldaketa"-z hitz egin beharrean. Klima larrialdia bere horretan injustua delako: eragin ttipiena dutenek dute gehien pairatuko, hauei aurre egiteko baliabide gutien ukanki gainera -aldrebes, ardura handiena dutenak dira gutien kaltetuak-. Zifra bakarra: mundu mailako %10 abe-

ratsenek ondorioztatzen dute berotegi gasen isurketen %50, Oxfam egituraren arabera. Noski, izan herri aberats ala txiror, hor ere bertako klase sozial apalenak ditu gehien pairatzen kalteak.

Klimari buruzko nazioarteko gailurretan, klima larrialdiaren arazoari justizia soziala txertatu nahian dabilta herri pobreak. Baina zaila dute, herri aberatsen ezaxolagabekeria eta jarrera berekoia dutelako parean. Hegokoak diruz laguntzeko engaiamendua ere ez dute betetzen Iparrekoek -urtero 100.000 milioi dolar klimaren esparruan eragiteko-. Mailegu bidez dabilta geroz eta gehiago laguntza bideratzen eta hori da okerrera: herri pobreen zorpetzea emendatuz doa, herri aberatsok ondorioztatu arazoei aurre egin ezinean direlako. Klima justiziaz ikaragarri urrun gara. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Alazne Juaniz

JOSTUN ETIKOA



HUTSUNE BAT BETETZEKO EDO ZERBAIT ESTALTZEKO EROSTEN DUGU ASKOTAN ARROPA



Askotan esaten diote Alazne Juanizi bere filosofia bere negozioaren aurka doala. Arropa egiten du eta arropa ahalik eta gutxiena erosteko esaten digu. Erosi soilik askotan erabili behar duguna eta hori tarrantzen denean, berriro josi edo beste zerbeit egiteko berrerabili. Arropa ekologikoa edo bigarren eskukoa kontsumitzea ez da aski. Eros-gosea da gelditu behar dena.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Arropa diseinatzailea zarela esan daiteke?

Nik beti esaten dut ez naizela ez diseinatzailea, ez patroigilea ere. Sortzailea, artisaua eta jostuna naiz. Josten dut, arropa egiten dut, baina ez dut ikusten neure burua diseinatzaile bezala. Agian hitz hori abstraktuegia da niretzat.

Nola sortu zen Erabili marka?

Nik txikitatik josten dut. Amona eta amarekin hasi nintzen eta betidanik asko gustatu izan zait nire gauzak tuneatzea eta brodatzea. Ez nekien asko, baina nekiena egiten nuen. Eskulanak, oro har, oso gustuko ditut eta zeramika eta *patchwork* ere egin izan ditut. Egia esan,

ez dut *patchwork* gehiago egiten ezin zarelako horretaz bizi. Duela hamabost urte Etxarri Aranatzera etorri nintzen bizitzera eta segituan hasi nintzen pentsatzen zer egin nezakeen herri txiki honetan. Nire bikotekideak esan zidan bazela emakume bat garai batean joskintza klaseak ematen zituen. Harengana jo eta konbentzitu nuen zerbeit egiteko. Berarekin ikasi nuen patrioiak egiten eta neurriak hartzen. Betidanik oso autodidakta izan naizen arren, emakume hau eskola zaharrekoa zen eta izugarri ikasi nuen berarekin.

Gerora beste teknika berriago batzuk lantzen joan naiz internetetik egindako unibertsitateko ikastaroetan eta baita

Gasteizen bi urtez eginiko ikasketetan ere. Berehala nire motxila eta poltsak egiteari ekin nion, beti gai birziklatuak erabiliz, eta horrela joan zen sortzen nire marka, Erabili, beti jasangarritasunarekin oso lotutakoa.

Tailerra zabaltzea zaila izan zen?

Jakina. Hasieran taberna batean aritu nintzen lanean, baina erabaki nuen nire txoko propioa zabaltzea. Horretarako langabezi saria kapitalizatu nuen eta horrekin toki bat eta behar nituen makinak eta tresneria erosi nituen.

Motxilez gain, hasi nintzen haurrentzako arropa egiten. Gai ekologiko eta jasangarriak hasi nintzen erabiltzen eta



ERABILI

Alazne Juaniz Ezpeleta

IRUÑEA, 1976



Iruñean sortu eta duela hamabost urte Etxarri Aranatzen bizi den jostun artisau eta etikoa da. Erabili markaren sortzailea da eta, izenak dioen bezala, arropa ahal den bezainbeste erabiltzearen aldekoa. Gai birziklatuekin eginiko motxila eta poltsa koloretsuak izan ziren bere lehen lanak. Orain haur eta helduentzako jantziak ere egiten ditu gai ekologikoekin. Ingurumen eta ekonomia jasangarriaren aldeko jostun aktibista da.

halakoak dira geroztik erabiltzen ditudan ehun guztiak. Hasiere-hasiereatik ingurukoak hasi zitzaizkidan helduentzako arropa eskatzen eta hori da egun, gero eta gehiago, egiten dudana.

Zein da Erabiliren filosofia?

Nire pentsamoldearen oinarrian beti egon da kontsumo arduratsua. Arroparen industria oso kutsakorra denez eta kontsumoarekin izugarritzko eromena dagoenez, beti ibili naiz jendea kontzientziatzen esanez ez dugula arropa pila erosi behar, aukeratu behar dugula oso ongi zer eta zertarako erosten dugun eta kontuan hartu behar dugula non eta nola dagoen egin. Gertatzen dena da jendeak horren merke erosten duenez, pentsatzen duela jantzi bat bitan jartzearekin amortizatu duela. Askotan ere gertatzen da arropa batzuk, hain merkeak izanik, gaizki eginak egoten direla eta ongi gelditzen ez zaizkigunez, bazterrean uzten ditugula. Bestalde, arropa konpontzeko ohitura ere erabat galdu da jendearen artean.

Eta ideia hauek guztiak josi bitartean partekatzen dituzu jendearekin?

Bai, hala da. Duela hiru urte tailerrak ematen hasi nintzen. Alde batetik, Etxarri "Berrerabiltzearen artea" izeneko, arropa erabiliekin gauza berriak egiteko. Patroiak egitea baino gehiago, arropari bigarren bizitza ematea da ideia. Eta bestaldetik, Iruñerriko Mankomunitatean *Cose Telas* izeneko saioak egiten ditugu ostiraletan, Berriozarren Emauseko Trapuketariak duten egoitzan. Hor eskaintzen dena da espazioa, makinak eta nire aholkularitza. Saio libreak dira eta ez da beharrezkoa izena ematea ikasturte osorako, baizik eta zerbait behar duzunean soilik.

Tarteka lan egin izan dut Iruñeko Ingurumen Heziketarako zentroan edota Setem elkartearekin kustomizazio tailerrak egiten oihal afrikarrekin.

Ni oso militantea naiz eta klaseetan asko hitz egiten dugu gai hauetaz. Egia da nire tailerretara etortzen den jendea oso kontzientziatua egoten dela, baina ni beti kaka ematen ari naiz toki guztietan.

Non saltzen dituzu zure lanak?

Toki zehatz batzuetan, Geltokiko dendan, esate baterako, internetez eta

batez ere azoketan. Asteazken zehar tailerrak eman eta arropa josten ematen dut eguna eta asteburuetan azoketara joaten naiz. Gogorra da, eta gero eta gogorragoa egiten zait dena bakarrik egiten dudalako, baina oso polita da. Nire lana aurkezteko aukera da azoka. Horrela sentitzen dut nire lanak badituela hasiera eta bukaera. Tailer gehienetan pertsona bakarra aritzen gara eta merkatuak elkartzeko eta solas egiteko aukera ematen digu. Udazkenean eta neguan, batez ere, egoten gara bakartuak, gure buruarekin lan eta lan bakoitza bere txokoa gero udaberrirako dena prest edukitzeko. Eta jendearekin egoteko beharra sentitzen duzu. Gainera gure lan jardueran beti susmo kezkarriak egoten dira. Denok autonomoak gara eta ez dakigu denboraldia nola joango den. Autonomo guztion lana ziurgabetasunez bete dago, eta artisauona are zailagoa da oso gremio txikia garelako. Gutxi gara eta pandemia honetan ikusi da nola beste batzuek indarra izan duten elkartzeko eta gauzak aldarrikatzeko, guri hori ezinezkoa egin zaigu. Artisauon ahotsa entzunaraztea oso zaila da.

Zer moduz doaz azokak pandemia garai honetan?

Aurten oso gutxi dago. Azoka guztiak gelditu ziren eta oraindik kili-kolo dabilta. Ez da lehenagokoa berreskuratu, ezta hurrik eman ere.

Zabaldu dira tabernak, dendak, zinemak, antzokiak... zabaldu da dena baina gure azokak ez dira oraindik abian jarri. Egia da azokak oso lotuak daudela herrietako festekin eta jaiak bertan behera gelditzean, azokak ere berdin. Badirudi inori ez zaiola bururatu azoka mantentzea festarik ez antolatu arren. Edo azokak antolatzea beste une batzuetan. Gurekin ez dira inoiz oroitzen. Orain egiten hasi diren azoka gutxiak, artisauak beraiek antolatutakoak dira. Gu geu eta elkarte txiki batzuk mugitu gara dena antolatzeke eta baimenak eskatzeko. Ezin duzu imajinatu zenbat betebeharrak eskatzen diguten azoketan parte hartzeko, eta guretzako hori dena gastu bat da. Pandemian zehar jarraitu dugu dena ordaintzen, urte eta erdiz batere saldu gabe. Artisau askotxo bidean gelditu dira. Nik tailerra mantentzerik izan dut neguan klaseak ematen ditudalako. Klaseak online eman ditut, bideoak



zabaldutut Youtuben... denetik egin behar izan dugu. Beste esperientzia bat izan da eta guztietatik ikasten da.

Dirulaguntzarik jaso duzue?

Dena eguneratua eta laguntzak eskatzeko unean autonomoetan izena emanda geundenok zeozer jaso dugu, baina beste asko deus gabe gelditu dira.

Arropa gehiegi erosten dugu?

Bai. Kontsumoaz gain, pertsona batzuentzat arroparena bizio bat da. Niri oso polita iruditzen zait jendeak arroparen estiloa eta kalitatea baloratzea, baina jende asko dago hori muturrera eramane eta benetako bizioa duena.

Orain kontsumoaren zurrumbilo horretan dagoen jendeak ohitura handia hartu du sal-erosketen aplikazioetan arropa saltzeko. Ongi dago behintzat zakarrontzira ez duzulako botatzen, baina jarraitzen duzu eromen hori elikatzen. Bigarren eskuko arropa horrela erostea edo beste pertsonekin trukatea oso modan dago eta ongi dago, baina erosteko gosea ez dugu gelditu. Auto-engainu moduko bat da.

Zer bilatzen dugu? Ongi izatea? Autoestimua?

Bai, zoritxarrez. Hutsune bat betetzeko edo zerbait estaltzeko erosten dugu askotan arropa. Kalte egiten diguten alkohola, tabakoa edo drogak bezalako gauzen kontsumoarekin berdin jokatzen dugu.

Modak, hala ere, badu beste puntu txar bat: ez du onartzen gorputz desberdinak daudela. Gogorra eta kurdela da.

Adinarekin ere gorputza aldatzen da eta jende asko dago hori onartzen ez duena. Ikasi behar dugu gure gorputza maitatzen. Adiskidetzen joan behar dugu gure gorputzarekin, aldaketak hiltzen garen unera arte gertatzen direlako.

Generoarekin ere betidanik izan naiz oso militantea, batez ere haurrekin. Aukeratzen utzi behar zaie. Nik erabiltzen ditudan oihala, forma eta koloreak oso biziak dira eta nire postua oso deigarria suertatzen da haurrentzat.

Mutilentzat eta neskentzat. Askotan tokatzen zait entzutea: "Hori neskentzako da", soineko eta gonei buruz adibidez, mutiko batek halakoak hartzen dituelarik. Horregatik saiatzen naiz jendea kontzientziatzen. Nik gona eta soineko asko egiten ditut gustatzen zaidalako. Askotan esaten didate neskentzat egiten dudala arropa, baina nik arropa pertsonentzat egiten dut eta gero norberak aukera dezala nahi duena. Izan ere,

“

Arropa pertsonentzat egiten dut eta gero norberak aukera dezala nahi duena; soineko eta gona askotxo saldu ditut mutil eta gizonentzat. Hori zoragarria da”

soineko eta gona askotxo saldu ditut mutil eta gizonentzat. Hori zoragarria da.

Moda jasangarria modan dago?

Baietz esan daiteke. Moda jasangarri horren barruan badira ildo batzuk diotenak saiatu behar dugula ehun ekologikoak erabiltzen eta langileen lan baldintza duinak bermatzen. Hori dena oso beharrezkoa da, baina horretaz gain, saiatu behar dugu kontsumoa murrizten. Erosi behar dugu asko erabiliko dugun arropa. Askotan une puntual

baterako erosten dugu zerbait, jakinda berriro ez dugula erabiliko. Saiatu behar dugu ongi pentsatzen jantzi hori noiz erabiliko dugun, zertarako eta zerekin, bestela armairua beteta edukiko dugu beti eta ezer ez dugun sentsazioa buruan iltzatuta.

Honekin batera, saiatu behar dugu arropa zaintzen eta modu egokian garbitzen gehiago irauin dezan. Lehorgailuarekin, adibidez, asko urratzen dira koloreak. Arropak apurtzen direnean josten saiatu behar dugu. Askotan pentsatzen dugu merkea zelako ez duela merezi konpontzea, baina hori ez da egia. Beste aukera bat da moldatzea eta beste zerbait berria egiteko aprobeztatzea. Gainera, hori super dibertigarria da.

Plastikoekin eta autoen kutsadurarekin argiago ikusten dugu gure jokamoldea aldatzeko beharra, baina jantziekin ez horrenbeste. Hori gertatzen da arroparen kasuan jendea ez delako oso kontzientea horren atzean dauden prozesu eta jokamolde ilunez.

Gustatzen zait nire lana eta arropa etikoak erostearen alde nago, baina jende askok esaten dit nire filosofia nire enpresaren aurka doala. Nik beti esaten dudalako kontsumoa murriztu



behar dugula eta erosi aurretik, bitan pentsatu.

Gazteak nola ikusten dituzu?

Gazteen artean bada denetatik. Batzuk oso tope engaiatuta daude horrekin eta beste batzuk, aldiz, oso sartuta kontsumoaren zurrumbiloan. Baina hori ez da soilik gazteen artean gertatzen. Agian gazteek arropa zabor gehiago erosten dute, helduek beste kontzientzia bat dute, edo beste poltsiko bat.

Ematen du derrigorrezkoa dela azken denboraldiko moda erostea...

Nik badaukat arropa baita 18 urte nitueneko ere, eta gorputza ez zaidanez gehiegi aldatu, erabiltzen jarraitzen dut. Ni ez naiz oso moda zalea izan inoiz, modaren aurkakoa naiz.

Garrantzitsua da arropa neutroa erostea, urtetan erabiltzeko eta gauza askorekin konbinatzeko. Dena den, ez naiz inoiz jendearen gustuetan sartzen. Norberak nahi duen bezala jantzi behar du, baina gustatzen bazaizu ongi konbinatuta joatea, kontuan hartu behar duzu hori.

Niri asko gustatzen zait arropa kuttuna izatea. Urtetan oso gustura erabili ditugun jantziak dira kuttunak, gure bigarren azal moduko bat bihurtzen direnak. Orain kontsumismoarengatik sentsazio hori galtzen ari da eta egungo gazte askok ez dute sentipen hori ezagutzen.

Nolakoak gara euskaldunok janzteko ohituretan?

Iruditzen zait aldatzen ari garela, baina oso ilunak gara, ez gara batere ausartak. Oso klasikoak. Beltza, grisa eta urdin iluna maite ditugu. Nik horri "griskeria" esaten diot. Hasi nintzenezan kolore pilo erabiltzen nuen; orain gero eta gehiago ilunak. Izan ere, postura hurbiltzen den jendea beti etortzen da koloreek erakarrira, baina gero "griskeria" erosten du.

Haurrekin bai ausartzen gara kolore biziko arropekin, baina helduen arroparekin ez.



Dena ekologikoa izan arren, ero moduan ezin dugu kontsumitu. Ekologikoena da buruarekin kontsumitzea. Gutxi erosi eta asko erabili"

Materialak nondik ekartzen dituzu?

Oso zaila da. Ehun ekologikoak erosten ditut Kataluniako enpresa batean, baina jertseak edota kamisetak egiteko oihal elastikoak saltzen dituztenak oso gutxi dira.

Saiatzen naiz ahalik eta gertuen erosten, Alemanian adibidez. Europatik kanpo gauza

asko eta oso ederrak daude, Argentinan, esate baterako, baina hegazkin batean ekarri behar badizkirate, nahiago dut hemen gertukoak erosi. Kotoi ekologikoa erabiltzen dut eta orain gero eta gehiago tenzela. Eukaliptoaren egurretik ateratzen den ehun bat da, oso ekologikoa, bere prozesuan oso ur gutxi erabiltzen delako. Kotoi ekologikoa ere oso ona da, baina ur asko erabiltzen da bere prozesuan eta hori ez da jasagarria. Dena den, nahiz eta dena ekologikoa izan, ero moduan ezin dugu kontsumitu. Ekologikoena da buruarekin kontsumitzea. Gutxi erosi eta asko erabili, nire markak dioen bezala. ●

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Euskal nazionalismo hutsala?

Michael Billig britainiarraren *Nazional Nationalism* lanak (1995) eragin handia izan du nazionalismoari buruzko ikasketa akademikoetan. Lana oraindik euskaraz ez dugun arren, katalanez 2006an eman zen argitara, Valentziako Unibertsitatearen laguntzaz, eta gaztelaniara zortzi urte geroago itzuli zuten (frantsesez ez dago, nik dakidala). *Nazionalismo hutsal* kontzeptua eremu akademikotik harago ere zabaldu da, batzuetan liburuaren zentzuetik pixka bat aldentuta bada ere. Izan ere, Billigek *hutsal* horrekin ez dio inolako garrantzirik kendu nahi nazionalismoari, kontrakoa baizik: nazionalismoa ezin da ideologia batera mugatu, gure gizartearen funtsezko ezaugarria baita, batzuetan ezkutuan gelditu arren.

Billigek bere lana nazionalismoaren indarra zalantzan jartzen zen garai batean eman zuen argitara. Eremu akademikoan nazionalismoa lehenaldiko zerbait moduan ikusten zen, gutxienez estatu-nazionalismoaren kasuan; eta garai hartan gertatzen ari ziren nazio-gatazka ugariak –izan Jugoslavia ohian, izan Sobietar Batasuna izandako eremu zabalean– eremu sozialista ohiaren ajetzat, edota indar atabikoen agerraldizat ulertzen ziren. Edonola ere, ez Mendebaldeko edota lurralde aurreratu-tuetako gai moduan.

Baina Billigek nazionalismoa ez zuen bosniarren edota armeniarren prak-

Nazionalismo hutsala hegemonikoa da, sen onean txertaturik dagoena eta, beraz, esplizitu egiteko beharrik ez dagoena

tiketari aztertu, edo Mendebaldeko edozein mugimendu sezesionistaren kasua hartu. Aitzitik, estatu-nazionalismoaren indarra mahai gaineratu zuen, aztergaitzat eguneroko ekintzak hartuta. Lan hau aipatzen denean, askotan adibide bera erabili ohi dugu: nazionalismoaren ikur argiena ez da manifestazio independentista batean erabiltzen den bandera –edo eskuin-muturreko batean erabiltzen dena, nahiago bada–, eraikin ofizial batean, inor konturatu gabe eta higiturik, eskegita dagoena baizik.

Ondorioz, nazionalismo hutsal kontzeptua estaturik gabeko nazio errealtateekin erabiltzeak badu zailtasunik. Berez, estatuen indar normalizatzaileari loturiko ideia dugu, gizartearen eragiteko gaitasunari loturik doana. Bestera esanda, nazionalismo hutsala hegemonikoa da, sen onean txertaturik dagoena eta, beraz, esplizitu egiteko beharrik ez dagoena. Zalantzan jartzen ez dugun



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIA
IRAKASLEA

hori baita benetan gudan txertaturik dagoena.


Euskal nazionalismo hutsalaz hitz egin dezakegu, bada? Batzuetan erabili izan da kontzeptua, egia baita estaturik gabeko lurraldeek ere ahalako dinamika bultzatu nahi dituztela. Hots, aldarrikatzen den nazio identitatea hegemoniatik herritarren artean zabaltzeko ekintzez ariko ginatke, inkontzienteki hedatzen direnak –arrakastatsuak baldin badira–, eguneroko praktiken bidez: bandera, lurraldearen mapa, ereserkia eta, batez ere, eremu komunikatiboan nagusi den markoa. Albisteetan ‘politikaz’ ari garenean, ‘Euskal Herriko politikaz’ ari garela zehazteko beharrik ez izatea. Ikus daitekeenez, adibide hauetan guztietan zalantzarikoa da euskal nazionalismo hutsalaz aritzerik dagoenik. Batzuetan –ikurrinaren eta lurraldearen izenaren kasuan bezala– Euskal Herri osoaz aritzeko baino, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatzen delako. Eta, beste batzuetan, nazionalismo hutsalaren forman baino, halako dinamika gehiago direlako *erregionalismo hutsal* moduko bat.

Ziur aski, independentismoarentzat helburua izan daiteke Euskal Herriko nazionalismo hutsal izatera iristea, nazionalismo irabazle eta eraginkor batez ari garen heinean; baina ahaztu gabe estaturik izan gabe zaila dela halakorik lortzea, edo, gutxienez, arriskuak ere badaudela. ●

Herrien autodeterminazioa ez da herrien askatasuna baizik



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Gatazka guziak bozka bidez ezin direla konpondu, argudio askorik gabe azaldu daitekeen baieztapena dela iruditzen zait. Burura etorriko zaizkizue zapalkuntza adibideak, non zuzenean bidegabea iruditzen zaigun gutxiengo/gehiengo jokoaren arabera konponbide baten aukera bera. Burura etorri zaizkizuen adibideak, seguru, funtsezkoak diren giza eskubideen urraketek dagozkionak izango dira, kasu horietan delako hain zuzen onartezina bozka baten emaitzaren baldintzapean ezartzea gatazkaren konponbidea, oinarrizko eskubideak izate hutsagatik. Horiek urratzea delitu da, gehiengoak egin edo babestua izanagatik.

Kantitatearen aldagaia kontuan hartu beharrekoa da, noski, nola ez. Gure borondatea gauzatu ahal izateko beharrezkoa baita indarra edukitzea, eta horretan eragina duelako, noski, jendekantitateak, estrategiarako gure indargune eta ahulezien tamaina neurtzerakoan, alegia. Baina kasu: horrek ezin du gure aldarriaren edo salaketaren zilegitasuna ezbaian jarri.

Nazioarteko Autodeterminazio Eskubidea funtsezko horietariko bat da. Nazio Batuen Asanbladak berak aitortu da giza eskubide oinarrizkoen artean lehena dela, eta hala den heinean, bai-

ta gainerako guzien baldintza ere. Independentzia nazionala galtzean, bere lurraldean libre eta burujabe bizi ahal izateko eskubide berezkoa galtzen baitu populu batek. Dena, alegia.

Eskubide hau, inperialismoaren erasoan askatasuna galtzen duenean du herri batek aldarrikatzen, ez lehenago. Besterik gabe, ez duelako behar. Bere egoera naturalean bizi da, bere lurraldean aske eta independente, eta berezko askatasun-egoera horren kontra inork eraso egin ezean, zertarako behar lioke eskubide horri heldu? Eskubide baten aldarrikapena, urraketa baten aurrean eskubidedunak duen heldulekua da, une horretan baino zentzurik ez lukeena.

Autodeterminazio eskubidearen aldarria egiteak eraso inperialistaren salaketa inplizitua baldin badu, nola iritsi da inor pentsatzera autodeterminazio eskubidea askatasuna eta gatibutzaren artean erabakitzea dela?

Autodeterminazioa erreferendum bat antolatzea dela pentsatzea, hasteko, absurdoa da: zeren eta, nork erabakiko luke, askatasunez, gatibu izatea? Segitzeko, okerra da, eskubide honek duen esanahiaren faltsifikazio hutsa. Autodeterminazioak babesten duena herri bat bere lurraldean libre bizi ahal iza-

tea baldin bada, nola irudika dezakegu bozka baten moduan, non maila berean kokatuko den askatasuna eta gainetik kendu nahi den menderakuntza? Nola erabiliko dugu liberatzeko formulatua den tresna bat, inbasio bati izaera demokratikoa eta zilegitasuna aitortzeko bide gisa? Gainera, herri bakar bat ere ez baita horrela askatu. Ez bederen okupazio-aparatua oraindik bertan baldin bada, eta menderakuntzak berez dakarren ordezkapen demografikoa bere horretan onartuz.

Arriena, dena den, gure gatazka nazionalaren ukazioa izatea da: Euskal Herriaren menderakuntzarena, inperialismoaren existentziarena, eta okupazio-erregimenarena. Oraingo menderkotasun egoeran segitzea aukera gisa planteatze hutsa, oraingo erregimena demokratikoa eta zilegi dela aitortzea baita.

Erkideok, ez al zarete ohartzen? Gure askatasuna bozka batean jokatzeko moduko desesperaziora iritsi ote gara? Non gelditu da gure duintasuna?

Eta 'herria'-ren ordezkariok. Segizuen bideitsu eta proiektu lausoan, gure printzipioen salmentan. Baina otoi. Ez dezazuela Autodeterminazioaren izenean egin, edo Herriarenean. Zuenak ez du horrekin zerikusirik. ●



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Erakargarri edo libre?

Egin dute! EHZ magikoa antolatu dute. 25 urteko gazte belaunaldiak hartu du bere gain, mende laurden betetzen dituen herri festibalaren antolaketa. Ausardia, auzolana eta ilusioari esker, planeta guziak lerrokatu zaizkie. Amesten eta eraikitzen ari giren herri libre baten irudikapena izan dira hiru eguneko festibala eta bi asteko muntaketa/desmuntaketa. Irisarrin bildu da Euskal Herria. Zuzenezuzenean. Hau ez zen Iparraldea Zuzenean, ezta Grand-Sud-Ouest Zuzenean. Zazpi lurraldeak bildu dituen EHZ izan da. Ipar-Hego-Eki-Mende. Eta goxo zen! Hala ere, aitzineko edizioak ezagutu ditugunon artean, batzuek faltan sumatu dute euskal mundutik kanpoko publikoa.

1996an antolatu zen lehen festibala, egoera erabat desberdinean. Garai hartan, egitasmo bateratzaile eta egituratzailea irudikatu zuten, kostalde eta barnealdeko gazteria kohesionatzeko. Jende askorentzat, gure mundura sartzeko atea izan zen EHZ. Eta eskuineko lur frantsestu horietan, badugu oraindik holako tresnen beharra. Azken urteetako garaipentxoek ez digute ahantzarazi behar zein egoeratan gauden. Familia eta ingurune erdalduneko ekintzailea naiz; Miarritzen sortu, Angelun handitu eta Baionan eskolatua. Barneratua dut, beraz, jende berria gure borrokara lotu behar dugula, ezkerretik, internazionalismotik

eta feminismotik eraiki nahi badugu gure etorkizuna.

Aldiz estrategia guzia ezin dugu erakargarritasunean oinarritu. Sedukzioak bestearengana urrats bat egitera garamatza; berez, hori sana da. Baina gure posizioak asimetrikoak dira. Frangotan, gure diskurtsoa irisgarriago izateko, moztortzen hasten gira, deskafeinatzen dugu, parekoaren hizkera, hizkuntza eta onarpen heinera egokituz. *Why not?!* Baina behar ditugu ere gure baloreak errealitate bihurtzen dituzten espazioak. Autoafirmaziorako, autoestimurako, autoformakuntzarako, saretzeko... Eta urriak dira espazio hauek gaur egun.

Urtez urte, konfiantzan eta arduran transmititu den tresna da EHZ. Sortzaile belaunaldien alaba-emeak dira orain ardura postuetan. Gaurko gazte baten gogo eta beharrak, ez dira duela 20 urteko gazte batenak. Herri ekimenez, jendarte asko aldatu da. EHZ horren lekuko da, eta gazteria horren fruitua. Gure aitzinekoek ez zituzten ikastolak sortu gazteak frantses munduaren begietan 'erakargarri' izateko; haien buruaren jabe eta libre izateko baidik. Eta hala izateaz poztu behar genuke. Eta bitartean, berrasmatu beharko ditugu sozializazio eta inklusiorako espazio berrak. Paturik ez da; errealitatea eraldatzeko gaitasuna dugu! ●

Fikzioaren gramatika II: non(go)



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

("Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala". A. Alieva)

Hiztegi Batuan "Non forma 5 sarrertan aurkitu da" irakurri duzun arren, irudipena izan duzu ondotik askoz ere emaitza gehiago daudela. Gainera –sekula ez zara ongi-ongiri moldatu gramatikarekin-kategoria ezberdinak ere badituela ohartu berri zara: adberbioak ospe nagusia ematen badio ere, ez omen da haren lan bakarra; baldintzak jartzen ere badaki, adibidez.

Gaur egunean, non gauden adieraztea kontu fisikoa baino gehiago da. Lanerako agiri ofizialetan, erlatibitatearen legea go-goan-edo, bilera esteka batean egin dela idaztera eta irakurtzera ohitu zara. Espazioa eta denbora elkartu diren honetan, gero eta gatazkatsuago suertatzen ari da zehaztea bakoitza non dagoen. Zertan. Norekin.

Halako batean izugarri murriztu da bilaketa semantikoa, toki orotako ingelesezko "go" erantsi duzunean: "Zer tokitakoa". Eta hortxe zabaldu da, segur aski ere, esparrurik interesgarriena; etengabe berritzen baitira nongoaren gaineko eztabaida zaharrak. Emari agorrezina du bizidunen jarioak. ●

'Euscadiz'



FERMIN ERBITI ZABALTA
KAZETARIA

Ekain amaierako egunak Cadiz aldeko kostaldean eman ditugu. Hego Euskal Herrikoak izanik, originaltasunetik gutxi. Gu izan ginen hotel berean, euskara bigarrena zen hizkuntzen sailkapenean. Conilen, Tarifan eta inguruko herrietako karriketaren ere, gurea ez da batere hizkuntza arrotza. Egian esan, ez nuen uste udako Cadiz hain euskalduna zenik.

Bestelako oroitzapen onak ere ekarri ditugu opari: hondartza luze-luzeak, eguraldi bikaina, bertako argia eta ilunabar ikusgarriak. Ostalari eta dendarien tratua ahantzi gabe, noski, hangoa oso jende adeitsu eta atsegina baita. Hemengo ostatuetan-eta bestelako aldartetara ohituta, hori ere deigarria egin zaigu.

Hotelak haurrei begira eskaintzen zuen egitarau zabalak ere atentzioa eman zigun: goizetik gauera, bazkari garaiko parentesia kenduta. Ekitaldietara izena emanda zuten txikien gurasoek afaldu ere lasai egiten zuten, ordu horretan haur-zinema zegoelako programatua.

Guraso askok,
oporretan ere,
seme-alabak
"aparkatzeko" ahalegin
guztiak eginen dituzte,
edozein aitzakia
erabilita

Ez da ekonomian aditu izan beharrik eskaintzaren eta eskaeraren arteko harremana ulertzeko. Begi bistakoa da: guraso askok, oporretan ere, seme-alabak *aparkatzeko* ahalegin guztiak eginen dituzte, edozein aitzakia erabilita. Haien ustez, nonbait, haurren oporraldiko planik hoberena etenik gabeko ekitaldi sorta da, "horrela ez baitira aspertzen". Horixe entzun nion hoteleko terrazan, bake ederrean, zerbeza bat hartzen ari zen aita bati.

Azpimarratz beteriko liburu bat ekarri ere ekarri dut Cadizetik, Paidós argitale-

txeak 75. urteurrenaren kariatara argitaratua. *Las preguntas siguen* du izenburu (*Galdezka segitu*, itzulpen librean). Iñaki Gabilondok bost laguni eginiko elkarriketak biltzen ditu. Karen Armstrong, Adela Cortina, Naomi Klein, Muhammad Yunus eta Facundo Manes dira iritzi-emaleak. Erlijio, filosofia, zientzia eta ekonomiatik mintzo dira bostak, pandemiaren ondorengo gizartea hizpidea harturik eta pil-pilean dauden hainbat gairi buruzko iritzia emanez: klima aldaketa, pobrezia, askatasunen murrizketa, arrazakeria...

Guztiek munduaren martxa eroa aldatu beharra adina aipatzen dute betikoan segitzeko arriskua. "Kapitalismoaren makina herdoildua -dio Kleinek- lanean ari da berriro, beti bezala joka dezagun". Argi-ilunez beteriko liburuak amaiera oso baikorra dauka, baikorregia agian, Manesen hitzetan: "Erresilientzia garaile aterako da. Guztion ongizatea bakoitzaren arrakasta baino garrantzitsuagoa dela ulertuko dugu". *Euscadiz* aldeko argi eta ilunabar ederrak gogoan, ez dago ekaineko oroitzapenekin amaitzeko modu hoberik. ●



25 urte elikagai
ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
SABORRAO AGRIKOLU, PRODUZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA



25 ANOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
SABORRAO AGRIKOLU, PRODUZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

Ospatu gurekin
urteurrena!

Irailak 24-25-26
Zentzumenen parkea, Noain

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzeko da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25 €

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



AITORTZA EZA

Bigarren tortura hori

Iruñeko Alde Zaharrean bildu gara Gloria Bosque, Marilo Gorostiaga eta Ainara Gorostiagarekin, Nafarroako Torturatuen Sareko kideekin. Hurrenez hurren 1973an eta 1975ean, 1994an eta 2002an torturatu zituzten.

Ondorengo urteetan torturak haien bizitzetan izandako eraginaz mintzatu gara, adituen esanetan “torturaren motxila bizitza osorako baita”. Torturatu egin dituztela, horren aitortza nahi dute bai ala bai.

 XABIER LETONA  DANI BLANCO

Gloria Bosque hartu du hitza eta zuzen jo du 1973ko atxiloketara. Orduan FRAP Espainiako Estatu mailako talde armatu iraultzaileko kidea zen. “Bost egunetan oso gogor torturatu ninduten, baina ni indartsu nengoen ideologikoki eta ez zidaten ezer atera. Hori harrotasunez bizi izan nuen, baina ez nintzen ohartu torturak ekarriko zidanaz. Bigarren aldia, 1975ean, oke-rrago eraman nuen”.

Iruñeko Udalak frankismoaren aurka jarritako kereilan parte hartu zuen Bosquek 2017ko martxoan: “Egindako guztia kontatu behar zen eta hustuta gelditu nintzen, oso ukitua utzi ninduen. Gero Nafarroako Legebiltzarrean hasi nintzen hitz egiten [2017ko apirilean] eta ezin nuen, ez nintzen ongi sentitzen, eta gainera, ez nintzen ba negarrez hasi! Eskerrak Meritxek [testigantza ematen zuen beste torturatu batek] eman zidan besarkadari!”.

TORTURATIK ZIEGARA

Torturaren ondorenari espetxean ekin zioten hiru emakumeek. Bosque: “Espetxeke lehen 20 egunetan uste nuen zoratuko nintzela. Eta pentsatzen nuen: ‘Edo zoratuko zara edo zure buruaz beste egingo duzu’. Ideologikoki ez nengoen

1973an bezain gogor eta hori klabea da”. Marilo Gorostiagak une zehatz horren garrantzia nabarmentzen du: “Gogoan dut polizia-etxetik Carabanchelgo espetxera joan eta bertan harrera batzordeak emandako zaintza itzela izan zela niretzat, oso oso garrantzitsua”. Eta Ainara Gorostiagak oso desberdin bizi izan zuen unea: “Polizia-etxetik Soto del Realera eraman nindutenean trauma ondorengo estresa nuen, baina ez nuen nire torturez hitz egin han ziren bi pertsonekin. Gainera, ni zoriontsu nintzen kartzelan egoteaz, hori paradisua zen”.

ETA GEROAGO KALERA

Kalean ere ekin behar dio bizitzari torturatuak, ustez libre, baina torturaren iraganera kateatua: “Bigarren aldia oso indartsu ateratu nintzen espetxetik –dio Bosquek–. Sozialki oso garai indartsua zen [Trantsizioa], uste genuen iraultza egingo genuela, gizartea bor-bor zegoen eta horrek ere laguntzen zuen tinko eusten. Hori bai, sumatzen nuen nire atzean pausoak entzunez gero larritzen nintzela. Psikiatra batek Rorschach testa ere egin zidan: ‘Nabari da une oso gogorra pasatu duzula, baina nik ongi ikusten zaitut’”.

“Zure ohiko bizitzan –gaineratzen du

hunkituta Marilok– agian ez zara ohar-tzen, baina une zehatz batzuetan, hainbat arrazoi tartean, hortxe agertzen da tortura. Ziegan zinenean inkomunikatua, sarraila eta ate zarata handiak entzuten ziren, eta orain ere antzerako zerbait entzun eta beldurra sentitzen dut. Oraindik ere, uniforme berde bat ikusi eta, ufl, larritzen naiz, trafikoko guardia izanik ere”.

Beldurrak eta urduritasunak sarri jazarri dute Bosque ere: “Manifestazioetan polizia agertzen zenean alde egiten nuen, sekulako kakalarria sartzen zitzaidan eta ezin nuen nire burua kontrolatu. Gogoan dut pasaportea atera behar nuela Iruñeko Gobernu Zibilean, eta ezin nintzen hara sartu, hainbatetan joan eta atzera egin nuen, ezin beldurra kontrolatu. Azkenean aitarekin joan eta lortu nuen. Baina adinean aurrera egin ahala zaurgarriagoa ere bihurtzen zara. Lo egiteko noizean behin lasaigarriak hartzen hasi nintzen 70eko hamarkadan eta oraindik tarteka jarraitzen dut hartzen”.

Ia 50 urte geroago mamuak hor dira Bosqueren ingurumarian: “Duela bost urte, atariko telefonotik norbaitzuk txantxetan tinbrea jo eta “Polizia, ireki!”, esan zuten. Ez zen Polizia, baina nik ez nien ireki. Eta duela bi urte auzoko batek esan zi-



dan nire solairuan Polizia ikusi zuela, eta ni neure artean larri, "nire bila etorriko ote dira?". Etxeratu aurretik bi ordu pasatu nituen auzoan bueltaka, urduri. Gero jakin nuen tratatu txarren kontu batengatik aritu zirela gure atarian".

Ainara Gorostiagak ere badu zeresanik egunerokoaz eta hala adierazi zuen 2017ko emakume torturatuen legebiltzarreko agerraldian: "Ikasi dut horrekin bizitzen. Ikasi dut iluntasunak beldurra ematen didala, eta ikasi dut argiarekin lo egiten. Biolentzia zantzuak ikusi edo sentitzen ditudanean arnasa hartzen ikasi dut. Ikasi dut alabari esaten plastikozko poltsa batekin jolas egin eta buruan jartzen duenean oroimen txarra ekartzen didala. Eskuak begietan jartzen dizkidatenean, haiek aldentzera ikasi dut. Ikasi dut ez dudala gustuko lau hankatara jartzea, zergatik ez dudan gustuko urpean ibiltzea, buelta ematen dut ikusten ez dudan norbaitek atea irekitzen didanean...". Eta irakurleak leitzen badu ondoko orrialdean dagoen bere tortura testigantza, zalantzarik gabe, hobeto ulertuko ditu Gorostiagak esandakoak.

Ainarak argi du: "Torturaren aurreko bizitza eta ondorengoa dago: hainbes-

te markatu gaitu! Nire kasuan kostatzen zait gutxiago egin zidatenaz hitz egitea, emozionalki horrek ekarri didanaz baino; niretzat alde emozionala da gogorrena. Torturaren inguruko gaiekin ari zarenean, haserrekorrako sumatzen dut nire burua; eta hori ezagutzeko gai naizenean, lasaia gertatzen naiz".

ITZIARREN SEMEA...

...tinko ta isilik egoiten. Abesti ezagunaren itzala ere haien inguruan ari da jira-biran: "Gloriak lehen aipatu du -dio Ainarak- berak lehenengo atxiloaldian aguantatu zuela eta ez zuela ezer esan... baina hor ez zara inor, nahi dutena egiten duten zurekin. Niretzat, izen batzuk bota behar izatea eta horren ondorioz pertsona horiek kartzelarekin ordaindu behar izatea... hori izan da gogorrena".

Sistemaren erantzukizuna azalera ekarri du Ainarak: "Torturaren auzian, ez dago polizia bakarrik, sistema oso batek babesten du hori, auzi-medikuak hor dira, epaileak... Espetxean, adibidez, sartu eta bi egunera mediku bat etorri zen isolamendu ziegara eta soilik atearen zirrikitutik begiratuta artatu ninduen: gazura edo sueroa eman zidan. Handik egun ba-

tzueta, nire abokatuarekin egon ahal izan nintzenean, espetxeari zuzendutako eskaera egin nuen, miaketa zehatz batzuk egitea eskatu nuen, ea horrela jasandako tratatu txarrak ikusten ziren. Ez nuen inoiz erantzunik izan".

Normal bizi nahi dute, baina aitortza- ren borrokan eta esperantzan bizi dira, bakoitza bere sentipenekin. Marilok argi du: "Nik ez dut biktima izan nahi, hori haiei garaipena ematea da eta. Ez dut nahi jasandako tortura haiek nire egungo bizitza eta etorkizuna baldintza dezaten. Bai, torturatuak izan ginen, baina ez dut bizitza osoa honekin gainean bizi nahi. Normal bizi nahi dut".

Bosque sutsu mintzo da, barrutik, minnez, ikerketa eta aitortza eske: "72 urte ditut eta torturarik handiena da ez zaigula aitortzen egin digutena, horrek txikitu egiten nau eta gero eta jasangaitzagoa egiten zait. Aitortuko dute noizbait tortura? Presioa badute gutxienez, zerbait mugituko dira". Ainarak honakoa luzatu zuen Foru Legebiltzarreko oholtzatik: "Mina egina dago, baina gizarteak begiak zabal ditzala eskatzen dut eta onar dezala tortura hemen dagoela, ez dela bakarrik Guantanamo kontua". ●

Nola torturatu ninduten



GLORIA BOSQUE

"1975eko azaroa, Valladolid. Hotz egiten du, baina hotzez dar-dar egitea gutxi da. Biluzik nago hiru agenteren aurrean. Orain besoak gurutzean, orain oinak kanporantz jiratuta eta oinez biribilak egiten, orain belauniko eta kiribilduta, atzetik begiratu eta barre egiten duten bitartean. Kolpe jarioak azala erretzen du. Hitz egin, esaten dute, hitz egin. Baina bortxatutako aho honetatik soilik garrasiak ateratzen dira. Berriz gatza, aurpegi guztian, begietan, ahoan, eztarriraino. Erremintzen du, erretzen du, itolarria, gainetik kendu beharrean nago, mina erauzi. Baina eskuek atzean darraite, lotuak, sorgortuak.

Agian horrela hilko nahiz, agian gaur, gatzak erretako ahotsarekin eta gorputza kolpez josia. Jadanik ez naiz oihukatzen saiatzen. Aski dut airea biriketara iristen bazait. Gertukoak ditut buruan, eta Iruñea, mendia, lasterka egitean hartzen genuen aire hotz eta garbia... Zaplaztekoak begiak irekitzen dizkit.

Bera da berriz ere. Ez lokartzeko, oihu eginez. Bizitzea zer den ikasi behar dugula nagiek eta gaizkileek. Urrats batzuk urrundu eta trapezu zikin batekin itzuli da. Tanta dariola. Belaunetaraino doan bero hezea sentitzen dut eta badaikit berriz egin dudala pixa gainean. Irri egiten dute. Kexu dira, gaizki usaintzen dudala. Iraintzen naute, urde halakoa, ukitzen naute, popatik emateko ere ez duzu balio, nire pixarekin ziprirtintzen naute, zerri zikina.

Ezin dut gehiago. Bukatu nahi dut. Buka bedi sufrimendu hau. Hil nahi dut. Handienak kokotsetik heldu eta ahoa zabaltzen dit zakar. Latza eta hezea den zerbait sartu dit. Uste dut trapua dela eta nire oihuak estaltzen ditu. Jarri iezaiozu baita ere eskuoihala, entzuten dut itzalak eta ilunak ziega irentsi aurretik. Buruan eskuoihal bustia dut, trapua ahoan sartuta, eskuak lotuta, gorputza kolpez txikitua, iraindua, ahitua, beldurrak jota. Zer dator orain?".

Iruñeko Udalak 2017an frankismoaren aurka jarritako kereilan jasotako testigantzen zati bat da honakoa. Bosque FRAPeko kidea izan zen eta Espainiako Poliziak 1973an ere atxilotu eta torturatu zuen. Honako hauek, 1975eko atxiloaldiaren tortura testigantzak dira. Bi urte egin zituen espetxean.



AINARA GOROSTIAGA

“Begiak tapatzen zizkidan mozorroa izan zen polizia-etxeko lehen hiru egunetako nire jantzi ia bakarra. Lehen hiru egunetako galdeketa guztietan biluzik izan ninduten. Laugarrena jantzita, eta pixa egin nuen gainean. Falta zitzaidan egun eta erdi galtza bustiekin iragan behar izan nuen. Esan zidaten bi eta hamalau guardia zibil artean ari zirela galdekettetan, nik ezin nuen ikusi bakarra ere. Torturak zer ziren jakitea nire esku zegoela esan eta kolpeak hasi ziren, poltsa sesioak, sentadillak, oihiak, elektrodoak, postura behartuak, pistola, borra, sandwich-a, mehatxuak, lau hankatan... tarte txikiak egon nintzen ziegan, eta gainera ezin nintzen etzan. (...)”

Nire gorputza anesthesiatua bezala zegoen, bularretako ukituak sentitu ere ez nituen egiten. (...) Ezin nuen gehiago, ni hiltzeko esan nien, ez nekiela ezer. Ahulki batean jarri ninduten eta poltsarekin hasi berriz, asfixiatzen nintzen eta pultsua hartzen zidan guardia zibilak “hau badoakigu, badoakigu” oihukatzen zuen. Eta bai, nik hil nahi nuen. (...)”

Beste tortura saio batean buruan ematen zidaten bildutako egunkari gisako batzuekin, eta kolpeak nik emateko esaten zidaten haiek nekatuta zirela, eta nik nire burua astintzen nuen, gogor, eta

kolpatzean lasaitua sentitzen nuen. Bixia da, antsietatearen ondorioz ezpainei hoska egiten nien, azazkaletako azala altxatzen nuen eta zauriak egiten nituen, eta esaten zidaten uzteko hori egiteari; beldur ziren markak gelditzearekin. (...)”

Lau hankatara jartzen ninduten eta makil bat jarri ipurmasailen artean, esanez uzkitik sartuko zidatela, behin eta berriro guardia zibilaren semea izango nuela errepikatuz, edo inoiz ezingo nituela umeak izan. Berotzen nituela. Atzetik hurbiltzen zitzaidan sartzeko imintzioak eginez. Bularretako ukituak eta nire gorputzarekiko esanak etengabeak ziren. Lau alditan jarri zizkidan elektrodoak, oinak balde batean sartu eta kableak bizkarrean, besoetan edo bularretan bilduz. Une batean piztu ere egin zuten sistema eta sortu zidan histeria sekulakoa izan zen, nahiz eta haien esantetan ez zioten indar handirik eman. Behin arrastaka eraman ninduten ziegara, ni ezin bainintzen mugitu. (...)”

Kolpeak gogorak izan ziren, tortura fisikoa oso gogorra, baina gogorrena, gainditzea gehien kosta zaidana, nik emandako izenekin beste bost pertsona atxilotuak izan zirela eta nik pasatakoa pasatu zutela; sei hilabeteko umeari ama kendu zioten hiru hilabeterako eta aita bi urterako”.

2002an atxilotu zuen Guardia Zibilak eta Madrilen eduki zuten. Bi urte egin zituen espetxean.



MARILO GOROSTIAGA

“Nire lagunak entzunda ia pentsatzen dut ez naizela torturatua izan, ez ninduten biluztu, ezta bortxatu ere, baina beste gauza batzuk bai egin zizkidan... kolpeak alde guztietan, buruan, osti-

koak, poltsa, mehatxuak, irainak... Poltsa apurtzen nuen, baina orduan gogorrago ematen zidaten. Emakume batek parte hartu zuen galdekettetan eta hori egin zitzaidan gogorrenetakoa. Etengabe iraintzen ninduen, gizona eta itsusia nintzela, eta bere kideei eskatzen zien gogorrago jotzeko, gezurretan ari nintzela eta.

Abendua zen, baina atxiloaldi osoa mauka motzean pasatu behar izan nuen, gau eta egun. Eta denbora guztia zutik. Eta duzun errudun sentipena!, ziegetara etorri eta zu beharrean beste bat eraman eta zuk sekulako lasaitua hartu duzulako. Behin, paretari begira nindutela, kolpe handi bat eman zidaten buruarekin paretaren aurka, sudur-trenkadan fisura bat eraginez.

Hurrengo goizean furgoirra, negua zen eta ni mauka motzean, baina hala ere, leihoak irekita zituzten. Beste emakume bat ere ekarri zuten, Juli Makuso, eta esan zidaten hari haluzinogenoak eman zizkietela. Haluzinazioak ikusten zituen eta oso gaizki pasatu zuen; orduan ere, emakume guardia zibilak esaten zidan lagunak izan gintezkeela.

Nire burua nolabait babesteko, deklarazioa nire izen osoarekin sinatu nuen, nahiz eta hura ez zen nire sinadura. Gero Caranbanchelgo espetxera. Tratuaren seinaleak agerikoak ziren, oka egin nuen sartzean eta gibela handitua nuen. Auzi-medikuak berak jarri zuen tortura salaketa. Urtarrilaren 11n eraman ninduten epailearen aurrera, Madrilgo Castilla Plazako epaitegietara.

Epaileak salaketa hauen harira deitu zidanean, haren asmo bakarra zen nik esatea gertaera horiek Iruñean egin zizkidan eta ez Madrilen, bestela bere eremuko izango zen eta ikertu egin beharko zituen. Azkenean auzi-medikuak ez zuen salaketarekin aurrera jarraitu, esan zidan salaketak egin zituzten beste auzi-mediku batzuei gero bizitza asko zaildu zietela eta ez zuela aurrera jarraituko. Salaketa artxibatu egin zen”.

Guardia Zibilak atxilotu zuen Iruñean eta hamalau urte pasatu zituen espetxean. Ainara Gorostiaga eta Marilo Gorostiagaren testigantzak Nafarroako Legebiltzarrean 2017ko apirilaren 7an Foro Sozialak antolatutako ekitalditik jaso dira. Beste hainbat emakumeren testigantzak ere izan ziren eta hemen ikus daitezke horietako batzuk:



NAFARROAKO TORTURATUEN ESKAERA

Ikertu eta aitortu

2019an sortu zuten Nafarroako Torturatuen Sarea eta taldeak lortu du torturatuen oihua kalera eta erakundeetara helaraztea. Helburu nagusia argia da: egindakoaren aitortza, justizia, erreparazioa eta ez errepikapenaren bermea. Badakite zaila dela, baina bidea has dezatela aldarrikatzen dute, eta horretarako Nafarroako Gobernuari eskatzen diote egin dezala Nafarroako torturatuei buruzko ikerketa.

 XABIER LETONA

Nafarroako Gobernuak badu nora begiratu, 2016an Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak, 1960tik eta 2013rako epean EAEn izandako tortura kasuei buruzko txostena egitea enkargatu zion Kriminologiaren Euskal Institutuari. Paco Etxebarria, Martin Beristain eta Laura Pegok zuzendu zuten lana. Epe horretan 3.577 herritarrek jarritako 4.113 tortura salaketa bildu zituen txostenak, horietako 500 bidez jasoak eta 202ko lagin bati, Istanbulgo Protokoloa egin zioten.

Txostenaren esanetan, “202 pertsona horietatik 197k atxiloketa inkomunikatuan zehar izan zuten tortura-erperientziaren benetako eta egiazko kontakizuna egin dutela uste da”. Lagina, jakina, kopuru orokorraren ispilu da, eta horra hor txostenaren balioa. Euskal Herrian torturari buruz inoiz egin den azterketa sakonena da eta ondorioak ugariak. Haietako bakarra azpimarratuko dugu hemen: sinesgarria da Guardia Zibilak epe horretan 1.589 pertsona torturatu zituela, Espainiako Poliziak 1.561 eta Ertzaintzak 310.

Foru Gobernuak bazuen nora begiratu, beraz, eta aurreko legealdian, Uxue Barkosen gobernuak EAEkoaren antzeko enkargua egin zien Kriminologiaren Euskal Institutuari (EHU) eta Nafarroa-

ko Unibertsitate Publikoari, torturari buruzko ikerketa egin zedin 1960tik 2017ra, horretarako 30.000 euro jarritz. Espainiako Gobernuak (PP), Nafarroako Ordezkaritza medio, helegitea jarri zion ikerketa ahalbidetzen zuen arauari eta Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen araua. Azkenean, alabaina, oroimen historikoan oinarritutako zirrikitu bat topatu zuen Ana Olloren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako sailak eta bideratu zen 1960-1978 epearen ikerketa.

Txostenaren Ondorio nagusia honakoa da: 153 herritarrek 164 tortura kasu salatu zituzten, hau da, batzuk birritan torturatu zituzten. EAEn ez bezala, hemen bi pertsonari bakarrik egin zitzaion Istanbulgo Protokoloa. Bistan da, oro har, EAEkoaren bidetik egindakoa bada ere, askoz azterketa xumeagoa dela, eta Kriminologia Institutuak berak aitortzen du seguruenik salaketa gehiago daudela epe horretan eta aholkatzen du ikerketa 2013ra arte luzatzea.

Baina Nafarroan 164 kasu baino askoz gehiago daude. Euskal Memoria Fundazioak torturari buruzko beste lan handi bat argitaratu zuen 2016an eta hartan, Euskal Herrian 4.643 pertsonari eragiten dieten 5.657 tortura kasu identifikatu dituzte 1960-2014ko epean. Hau da, pertsona asko hainbate-

tan torturatu zituzten eta bateren baten kasuan bost aldiz. Bada, horietatik, 693 Nafarroako kasuak dira, eta Nafarroako Torturatuen Sarearen arabera, 1.000tik gora izan daitezke.

NON DAGO MIKEL?

Iruñeko aretoan, hunkituta, ikusleak txaloka hartu du *Non dago Mikel?* filmaren amaiera. Filman ez zegoen adin batetik gorakook sarri ikusi eta entzun ez dugunik, baina ostera ere torturaren irudia ikuslearen erraietan iltzatzea lortu zuen. Ez zen nahikoa semea torturaz hiltzea, eta amari “bila ezazu objektu galduetan” ihardetsi zion guardia zibilak ankerkeria noraino eraman daitekeen erakutsiz; Ion Arretxeren testigantzak oroitu digu edonor izan daitekeela; eta Jorge Argote Guardia Zibilaren abokatuaren prentsaurrekoa, estatuak torturari emandako inpunitatearen lekuko da.

Filmarekin egileek, halaber, asmatu zuten Pedro Gómez Nieto Guardia Zibilaren kapitaina eta Juan Alberto Perote Cesideko buruaren arteko elkarrizketa hedabideetara eramanez. Audio hartan Gómez Nietok hoztasun eta normaltasun handiz onartzen zuen Mikel Zabala Guardia Zibilaren eskuetan hil zela, poltsaren tortura egiten ari zirenean, eta nola hori ohiko praktika zen. *Público* egunkariak argitaratu emandako audioa-

ren harira, Nafarroako Legebiltzarrak lehenbiziz eskatu zuen aho batez Zabalzaren heriotza ikertzea. Ekainaren 26an, halaber, torturaren inguruko adierazpen bat aho batez onartu zuten Nafarroako Parlamentuko Mahaiaik eta Bozeramaileen Batzordeak. 2021. urtean era horretakoak lorpen gisa saltzea ere bada komeria eta egoera non den ere erakusten du.

Nafarroako Torturatuen Sarea hainbatetan atera da kalera, 2020ko mar-

txoan 1.000 aulki huts jarri zituen Gazteluko Plazan, eta hainbat manifestazio jendetsu ere deitu ditu. Azken agerraldia iragan ekainaren 26an izan zen, Torturaren biktimei babesa emateko Nazioarteko Egunaren harira. Beti eskaera bera dago oinarrian: Ikertu eta aitortu. Nafarroako Gobernuari dagokio ikerketa bururaino eramatea, baina jadanik legealdiaren bi urte iragan dira eta ikerketa eskaerak zain jarraitzen du bulegoren bateko tiraderaren batean. Unai

Hualde Foru Legebiltzarreko lehendakariak egin die harrera nafar torturatuei, Maria Chivite lehendakariak ez oraindik, ezta UPNko eta PSNko Legebiltzarreko taldeek ere. Euskal gatazkaren kontakizun bakarraren testuinguruan ondo ulertzen diren jarrerak dira -polizia gutxi batzuek torturatu dute, ez estatuak-; baina giza eskubideen begiradapean ulergaitzak dira bigarren, hirugarren edo laugarren mailako biktimak eta he-rritarrak bereizten dituzten jarrerak. ●



IDOIA ZABALETA / FOKU

Antonio Goñi Igoari eta Mikel Zabazari ekainaren 25ean Iruñean egindako omenaldia. Zabalzaren kasua aski ezaguna da, baina etxarriarrarena ez. Goñi 1970ean atxilotu zuten Donostian Burgosko Prozesuaren protesten testuinguruan. Hamazortzi egunez inkomunikatuta egon zen eta torturatua izan zen. Aske utzi eta egun batzuetara bere buruaz beste egin zuen, bere emazteari gutun bat idatzita utzi ondoren.

LUA arkitektoak
 ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
 948132697 - Arga ibaiá kalea 28-30 Iruñea

Ogiaren egia
Galparsoro
OKINDEGIA
 Ogi biologikoak
 Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
 Orantza ogiak
 Kale Nagusia 6 (Aldre Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

TRADEBI
 TRANSLATION
tradebi@tradebi.com

“ ”

Kirol honen zailtasunari, aurreiritziak batzen zaizkio

Eneko Lambea, gimnasta

Tapizaren gainean ez ezik, bertatik kanpo ere akrobazia ugari egin behar izan du Eneko Lambeak, gizartean indarrean dauden estereotipoei iskin egin eta bere buruarekiko fidela izateko. Gimnastika erritmikoa du pasio, eta Euskal Herrian maila nagusian dabilen lau gizonetako bat da. Umea zela maitemindu zen kirol horretaz, eta iaz Espainiako Txapeldun bihurtu zen, 16 urterekin. “Oso kirol sakrifikatua” da, eta aurreiritziek are gehiago malkartu diote bidea. Izan ere, emakumeen kiroltzat jotzen da beti gimnastika erritmikoa. Lambeak garbi du: “Kirolek ez dute generorik; gizartearen begiradan dago arazoa”.

Bi urterekin hasi omen zinen saltoka eta zilipurdika. Ia jaiotzetik zara gimnasta.

Bai, nire bizitza eta gimnastika erritmikoa betidanik egon dira lotuta. Banaezinak direla esan daiteke. Ia aldi berean hasi nintzen oinez eta ariketak egiten: lehen pausoak eman, eta berehala zilipurdi bat egin nuen. Nire bizitza ez dut gimnastikarik gabe gogoratzen. Arreba gimnasta zen, eta hark egiten zuena koptatu nahi izaten nuen. Jabetu nintzen oso gustuko nuela. Leioako Sakoneta klubean ziharduen arrebak, eta bertan hasi nintzen ni ere.

Zerk erakarri zintuen hainbeste?

Sormenak garrantzi handia du, ez da batere errepikakorra. Aldiro gauza berriak asmatzeko aukera duzu, eta hori ikaragarri gustatzen zait. Bestalde, koordinazio handia behar duzu, akrobaziak eta bestelako mugimenduak egiteko. Horretaz aparte, balio oso garrantzitsuak eman dizkit gimnastika erritmikoak; hala nola, diziplina. Eta barruan dudana askatzeko ere balio dit. Izatez ez naiz oso pertsona irekia, baina tapizean nagoeanean, gai naiz sentitzen dudana

azaleratzeko. Libre sentitzen naiz.

Pasio handia duzu, eta talentua ere bai, iaz Espainiako Txapelketa nagusia irabazi zenuen, 16 urterekin. Oso goiz da, ala?

Goiz da, baina egia da gimnastika erritmikoan kirolarien adina askoz ere txikiagoa dela beste kirol batzuetan baino. Agian, mutiletan ez hainbeste; guk gehiago irauten dugu. Baina badira 18 urterekin uzten duten neskak. Malgutasun handia behar duzu, eta zahartzen zaren heinean, zurrundu egiten zara. Gainera, kirol oso sakrifikatua da gurea: ordu asko pasatzen ditugu entrenatzen, eta batzuetan pasioa agortu egiten da.

Zenbat entrenamendu izaten duzu astero, eta zer iraupen izaten du entrenamendu bakoitzak?

Normalean, astero bospasei egunez entrenatzen dut, eta entrenamenduak hiru eta bost ordu artekoak izaten dira; astean, 21 ordu inguru. Nahikotxo da, egia esan. Alde batetik, malgutasun ariketak egiten ditugu, eta bestetik, ariketa espezifikoak, tresna ezberdinekin: pilotarekin, zintarekin... Tresne-



kin igarotzen dugu denbora gehien. Horretaz aparte, lesioen prebentzioari ere garrantzi handia ematen diot, eta asteen pare bat ordu eskaintzen dizkiot alor horri. Hori gimnasioan egin ohi dut. Orkatilek eta belaunek asko sufritzen dute, eta komenigarria da artikulazio horiek sendotzea, lesioak izateko arriskua gutxitzeko.

Hortaz, dedikazio handia eskatzen duen kirola da. Eta tamalez, zuretzat bidea are zailagoa izan da, gizonezkoa izate hutsagatik.

Bai, mutilok beste oztopo bat gainditu behar dugu: aurreiritzi eta estereotipoen. Kirolaren zailtasunari, gizartearen presioa batzen zaio. Nik nahiko ondo bizi izan dut. Esan bezala, oso goiz hasi nintzen, eta horren txikia izanda, ez nintzen gauza gehienetaz jabetzen. Gurasoek eta arrebak hesi edo ezkutu moduko bat eratu zuten, jendearen mespretxua ez

“ ”

Ez naiz oso pertsona irekia, baina tapizean nagoenean, libre sentitzen naiz barruan dudana azaleratzeko

iristeko. Orain, helduagoa naizenez, eta kirol honetan urte asko daramadanez, jendeak ez du horren gaizki ikusten.

Edonola ere, Euskal Herrian zabiltzaten mutil apurren artean, ziur denek sufritu dituzuela, modu batera

edo bestera, gizartearen aurreiritziei aurre egin izanaren ondorioak.

Noski. Uste dut gimnastika artistikoa egiten dugun mutil guztiok pasa dugula gaizki unereren batean. Hasteko, iruzkin mingarriak entzun behar izan ditugu. Eta horretaz aparte, kirolaren barruan, alde handia dago nesken eta mutilen artean: adibidez, neskek badituzte guk lehiatu ezin ditugun zenbait txapelketa. Halakoak nabaritu egiten dira, ezin duzulako izan nahiko zenukeen garapena. Muga batekin egiten duzu topo, eta frustrazio handia senti dezakezu.

Nolako iruzkinez ari zara?

Homosexualitatearekin lotutako asko; kirol hau egiten baduzu, homosexualtzat jotzen zaituzte zuzenean. Ez du inongo zentzurik, baina halako estereotipoak oso errotuta daude gizartearen. Balletarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Egoerak hobera egin du,



baina ez behar bezainbeste. Duela hamarkada batzuk baino hobeto egon arren, ezin dugu esan primeran gaude nik. Mutil bat orain hasiko balitz gimnastika erritmikoa egiten, oraindik nabaritu egingo luke jendearen erdeinua. Agian, ez modu horren zuzenean, baina sentituko luke.

Zure gurasoek nola bizi izan dute hori guztia?

Ahal izan duten naturaltasunik handienarekin. Nire aita futbol entrenatzailea da, baina sekula ez nau futboleantzerara behartu. Kontrara, askatasun osoa eman dit zoriontsu sentiarazten ninduen hori egiteko.

Hortik abiatuta, guztiok batu egin gara, egoeraren kontra borroka egiteko. Familiaren eta lagunaren sostengua funtsezkoa izan da. Inguruko babesik gabe, ia ezinezkoa da amore ez ematea. Kluba alboan izatea ere oso garrantzitsua da, kirolaren barruan eman daitezkeen injustizien aurrean. Adibidez, txapelketa batean ez badizute parte hartzen uzten, klubak lagundu egingo zaitu, eta borroka egingo du zure alde.

“ ”

Edertasunarekin lotzen da gimnastika artistikoa, eta gizonok, ustez, gauza fisikoak egin behar ditugu

Baztertua sentitu zara kirolaz haragoko esparruetan?

Eskolan bai, adibidez. Baina horrek ez ninduen gehiegi mindu: baztertzen nauena ez da nire laguna, eta kito. Berez nirekin egon nahi duten pertsonengana hurbildu naiz. Ikaskideekin nuen harremana eskola barrukoa zen baka-rrik, eta hori garbi izateak asko lagundu dit. Bestela, majo sufrituko nuen.

Aitzindari zarela sentitzeak ere indar handia emango dizu ekinean jarraitzeko.

Noski. Adibidez, elkarrizketak ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina badakit gizonezkoen gimnastika erritmikoak komunikabideetan presentzia badu, errazagoa izango dela jende berria erakartzea, eta gure atzetik datozen mutilek bide samurragoa izatea. Ederra da bidea urratzen ari naizela sentitzea.

Talde mistoetan lehiatzeko aukera izan zen iazko Espainiako Txapelketan. Aurrerapausotzat jotzen duzu?

Oso urrats garrantzitsua izan zen. Hori da berdintasuna lortzeko bidea. Orain arte, guk bakarka baino ezin genuen lehiatu, neskek bakarkako txapelketa, taldekakoa eta kopa zituzten bitartean. Espainiako Estatu mailan, norabide egokian goaz. Eta are hobeto gaude Euskal Herrian, urte asko baitaramagu gizonezkoen emakumezkoekin batera lehiatzen. Nire ustez, oso aberasgarria da elkarren aurka aritzea, eta zentzuzkoa ere bai: lan indibiduala da, eta hobekien egiten due-



nak irabazten du. Horrez gain, Euskadiko Txapelketan aspalditik dago talde mistoak osatzeko aukera. Zorte handia dudala sentitzen dut. Toki egokian jaio nintzen!

Etorkizunera begira, zer litzateke hobe, gimnasta guztiak batera aritzea, kategoria bakarrean, ala gizonetzkoen kategoria indartzea?

Bi bideak daude ongi, nire ustez. Funtsa, niretzat, arauak berdinak izatea da. Adibidez, Japonian gimnastika erritmiko maskulinoa dute, baina beste arau batzuekin. Kirol ezberdin bat da. Hori ez da bide egokia, inondik inora. Gizonok soilik elkarren kontra lehiatzen badugu, baina emakumeen arau berdinekin, ez dago arazorik. Kirolaren esentziari eustea da kontua.

Hurrengo urratsa, nazioartean lehiatzeko aukera gehiago izatea izango litzateke, ezta?

Hala da. Egoera askoz ere txarragoa da beste herrialde batzuetan; ia ez dago mutilik, eta dauden apurrek baldintza petraletan dihardute. Kirola hedatzea lortu behar dugu, geroz eta gizonetzko gimnasta gehiago egon dadin, eta ildo horretatik jarraituta, noizbait Europako eta Munduko txapelketetan aritzeko aukera izan dezagun. Amets goren, noski, Olinpiar Jokoetan parte hartzea izango litzateke. Behin izan nuen aukera nazioartean lehiatzeko, Amsterdamen, ofiziala ez zen txapelketa batean. Bigarren geratu nintzen, baina emaitzaz harago, esperientzia ederra izan zen niretzat. Kanpoan jarduteak asko aberasten zaitu, gimnasta berriak eta estilo ezberdinak ezagutzen baitituzu. Tamalez, txapelketa hura salbuespen hutsa izan zen, eta asko dago egiteko ildo horretan.

Egoera zergatik da hobea Espainiako Estatuan Europako gainontzeko herrialdeetan baino?

Ekialdeko herrialdeak dira boteretsuenak gimnastikan: Errusia, Bulgaria, Ukraina, Bielorrusia... Ordea, ikuspegi nahiko kontserbatzailea dute, eta ez dute begi onez ikusten gizonetzko gimnastika erritmikoa egitea. Ez dakit den emakumeen kiroltzat dutelako, baina ez dute nahi. Ulergaitza da. Espainian, aldiz, gizonetzko beti indar handia egin dute kirol

hau ahalik eta normaltasun handienarekin egiteko, eta egungo egoera urte luzez egindako borrokaren isla da. Gimnastek beraiek egin behar dute bultzatzea, federazioek pausoak eman ditzaten.

Zergatik uste da emakumezkoen kirola dela? Menturaz, oso estetiko delako?

Edertasunarekin lotzen da gimnastika artistikoa, eta gizonok, ustez, gauza fisikoagoak egin behar ditugu. Nire ustez, kirolek ez dute generorik; kirol bakoitzari gizarateak jartzen dio generoa, ez kirolak berak. Hau da, gizaratearen begiradan dago arazoa. Lanketa handia egin behar da zentzu horretan. Telebistak eta sare sozialek eragin handia dute gizaratean, eta jendeak ikusten badu normala dela gizonetzkoek gurea bezalako kirolak egitea, errazagoa izango da trabak gutxitu eta jende gehiago erakartzea.

Nazioarteko Olinpiar Batzordearen asmoa da 2024rako kirol guztiak parekideak izatea. Posible ikusten duzu hori gimnastika erritmikoaren kasuan?

Ez dut uste 2024an halakorik gertatuko denik. Akaso 2028an, baina orduko ni helduegia izango naiz gimnastika erritmikoa egiteko. Orain 17 urte ditut, eta ez dakit noiz arte ariko naizen. Oso zaila da maila honetan urte askoan aritzea, eta 2028ra iristea ia ezinezkoa izango litzateke. Hortaz, ez dut uste sekula aukera hori izango dudarik. Baina egia esan, berdin zait: niretzat, aski da egunen batean mutil bat Olinpiar Jokoetan gimnastika erritmikoa egiten ikustea. Ametsa betetzat emango nuke. ●

Matematika txapeldun

Billy Elliotekin alderatu izan dute, baina alde sinbolikotik harago, Lambeak ez du uste antzik dutenik. "Nire istorio pertsonala oso ezberdina da". Kirolek kanpo, robotika da haren zaletasun nagusia, eta ikasketak ildo horretatik bideratu nahiko lituzke.

"Elektronikarekin lotura duen ingenieritzaren bat ikasiko dut". Ikasketak kirolarekin bateratzen saiatuko da, beti ere garbi izanda gimnastika "hobby bat" dela soilik. Pilotarekin, zintarekin, sokarekin edo uztaiarekin bezain ongi moldatzen da zenbakiekin. Euskadiko matematika txapelketa irabazi zuen behin. "Prestatu gabe joan nintzen. Berezkoa dut erraztasuna".

Iraultza Txikien Akanpada

Ongi Biziz borroken sua piztu

Iraultza Txikien Akanpadaren (ITA) bigarren edizioa egingo da abuztuaren 25a eta 29a bitartean Artean (Bizkaia). Su txikiak batuz piztu nahi dute sute handi bat, kapitalismo patriarkala amaitu eta lurra ongarrituko duena, bizitza modu berriak loratu daitezzen. 2018an bezala izango dira galderak eta erantzunak eztabaidatzeko mahai inguruak, musika, borrokak saretzeko espazioak, antzerkia, haurrentzako jarduerak, poesia, mobilizazio desobedientea... baina errazio doblean: 3 egunetik 5era egin du jauzi bigarren ITAk.

 ZIGOR OLABARRIA  ITA

Lehenbiziko ITA 2018an egin zen, Zubietan (Gipuzkoa), ostiral arratsaldean hasi eta igandera bitarte. Kanpaldia egitearen proposamena Lurralde Askea kolektiboak egin zuen. “*Ongi Bizitzeko 100 konpromiso* liburua argitaratu genuen 2017an. Hurrengo urtean kanpaldiaren ideia sortu zen, eta hainbat herri mugimendutako pertsonak bat egin genuen antolakuntzan. Egun politik izan ziren, oso intentsuak, konplizitate batzuk ehundu ziren”, gogoratu du Haizea Ziluagak. Balorazioa baikorra izan zen, eta ITA bi urtean behin antolatzeko erronka jarri zioten beren buruari.

Olatz Talavera Etxeberria Zubietan egon zen, baina ez zuen antolakuntzan parte hartu. Bigarren ITAra batu da lantaldera: “Lehen ITAn herri mugimendua saretu eta indartzea zen helburu nagusietako bat, eta orain ere bada horren beharra”. Antolaketan lehenbiziko ITAko zenbait pertsona mantentzen dira, beste batzuk ez, eta askotariko mugimenduetan ari diren militante berriak gehitu dira: “Feministak, antiespezistak, migrazioaren alorrean gabiltzanak, pre-

soenean, formazioan, pobreziaren aurrean antolatzen, ekologistak... Zabalak gara, eta zabalagoak izan nahi dugu”, dio Talaverak. Zubietako kanpaldian eskualde hartako pertsonak eta bertako borroketan inplikaturakoak parte hartu zuten bezala, oraingoan beste asko Arratiakoak dira.

COVID-19AREN AJEAK

2018ko ITAren aurkezpen testuan, Euskal Herria eta herrigintza lurrikara baten erdian zeudela hausnartzen zuten antolatzaileek: 2008ko krisia eta ongizate estatuaren paradigmaren amaiera, gatazka nazionalaren eraldaketa eta Euskal Herriaren normalizazio prozesua, Greziako edo Latinoamerikako gobernu aurrerakoen amiltzea... “Nola ez sentitu noraeza? Nola ez sentitu geure errealitatean eragiteko erreminta egokirik eza? Berriak sortzeko beharra?”, zioten orduan. Ez du ematen galderek aktualitaterik galdu dutenik, lurrikara horietariko asko presente daudelako oraindik, eta, batez ere, horiek guztiek txiki utzi dituen berri bat sufritzen ari

garelako: COVID-19a eta berau profita-tuz kapitalak antolatu duen ofentsiba.

2020an egitekoa zen bigarren ITA, baina osasun krisiaren ondorioz asmoa atzeratu behar izan zuten. Azken urteagatik galdetu diogu Ziluagari: “Asko eragin dute koronabirusak eta botere guneen neurri antisozialek. Herri mugimenduetan eta aktibismoa sakon baldintzatu ditu”. Zubietako ITAra deitzeko zabaldu zuten bideoa etorri zaio gogora. Zirkuko arkakusoen eta herritarren arteko paralelismoa egiten zuten bideoak. Arkakusoak kristalezko kupula batez estaltzen dira, ihes egin ez dezaten. Hasieran horma ikusezinaren aurka kolpatzen dira, harik eta, saltoak mugen barnean egitera ohituta, kupula kentzea dagoen ihes egiteko beldurrik gabe. Azken urtean kupula are estuago batean bizitzera ohitu garelako uste du, eta erronka berdina izaten jarraitzen duela: “Arauetatik eta legeditik harago salto egin, mundu hobeto bat lortzeko. Azken urteak nabarmenago erakutsi du hori elkar zainduz, txikitik eta hurbiletik, desazkundetik egin behar dugula”.



DESOBEDIENTZIA

Desobedientzia eta antolakuntza dira baimentzen digutena baino harago salto egiteko erreminta nagusiengatik. Lehenbiziko ITA Zubietan egitearen arrazoiak bat bertan borroka bizi bat zegoela izan zen: erraustegiaren aurkakoa. Kanpaldiari amaiera martxa desobediente batek eman zion. Ertzaintza oldartu zen manifestarien aurka, baina zapore goxoa utzi zuen martxak. Artean ere bada borrokarik, eta egongo da mobilizazio desobedienterik. Zer motakoa eta zer borrokan zentratua... “Abuztuaren 29an jakingo dute bertaratzen direnak”, dio Talaverak irribarre gaiztoz.

ARTEAKO BASOA ERDIGUNE

Bigarren ITAren epizentroa Basoa Defendatzaileen Etxea izango da, eta jarduerak ondoko espazio eta herrietara ere hedatuko dira. Baso baten erdian dago Basoa, ehunka metro koadro dituen etxea, dozenaka pertsona hartu ditzakeena, eta hilabeteak direla egokitzen ari direna auzolana oinarri. Proiektua Arte Saretik irten da, eta sarearen “eboluzio” bezala ulertzen du ekimenaren parte den Talaverak. Mota guztietako errefuxiatuak hartzen ditu Arte Sareak, berdin dio beren lurraldetik ihesean irten diren goseagatik, gerragatik, klima aldaketaren ondorioengatik edo errepresio politikoak bultzatuta. Gune “politi-

zatuago” baten premiak erditu du Basoa: “Etxe bat non mundu osoko aktibistak elkartuko diren. Bertako eta kanpoko aktibisten elkargunea, aktibismoa birpentsatu eta praktikatze tokia”.

ITA DENONA IZANGO DA, EDO EZ DA IZANGO

Egitarau oparua eta mamitsua prestatu dute antolatzaileek (ikusirik aparteko koadroa), baina edukiari besteko garrantzia ematen diote moduari. *Kanpaldia denona da eta denon artean aterako dugu aurrera* aldarria praktika bihurtzeko erronka jarri diote beren buruari. Horretarako, besteak beste, bertaratzen den orok bere aletxoak jarri beharko du –sukaldean lagundu, komunak garbitu, itzulpengintzan aritu hitzaldi batean, lantalde batean sartu...-, eta goizeko ordu beteko asanblada orokorra egingo da eguneko beharrak antolatu eta suertatu daitezkeen arazoak partekatzeke. Finean, amesten den jendarte eredu bost egunez gozatzea da helburua, Ongi Bizitzeko ariketa praktikoa. “Ongi Bizitzeko borroka egitea ere bada, borroka egin denok Ongi Bizitzeko”, dio Talaverak. Horregatik autoantolatutako kanpaldi parte hartzailea eraiki nahia, “adin guztientzako, euskaratik, feminismitik, antikapitalismitik edo elikadura burujabetzatik”, zehaztu du Ziluagak. ●

Izen ematea

Antolakuntza errazte aldera, alde aurretik eta ahalik eta goizen izena ematea eskatzen du antolakuntzak, “zenbat eta lehenago hobea”, ita.eus webgunean.

Egitaraua

Erreportaje hau idazteko garaian egitaraua ez zegoen erabat itxita, baina askotariko 40 jardueraren bost egunetan. Hona Artean gozagai egongo den menuaren zenbait osagai modu desordenatuan, goseaz pizten hasteko:

Hitzaldiak eta mahai inguruak

(itzulpen zerbitzua egongo da): *Krisi ekologikoa: Mehatxuak eta erronkak; Eraso matxistak herri mugimenduetan; Next Generation funtsak: eraldaketarako aukera ala Kapitalaren birfundazioa?; Gurea da garaipena! Borroka arrakastatsuen bizipenak; Literatura eta Euskal Gatazka; Komunikabide alternatiboak Euskal Herrian; Trans Legea; Elikadura burujabetzaren lorpenak, zailtasunak eta erronkak; Traka Matraka; Antolakuntza ereduak eta etika militantea; Espetxe ereduak; Koiuntura politikoa aztertzen; Saharako gatazkaren historia; Nola eraiki komunitate euskaldun eta feminista; Erronka eta praktika feministak, gure arrazakeriaren ardura hartzen; Hama-bi sendabelar eta hamaika jakintza gure tradizioan; Antiespezismoaren oinarriak; Euskal oasia? Ustelkeriaren trapu zikinak agerian... **Eman-kizunak:** Trakamatraka konpainiaren “Matraka ma non troppo”, Peru Gelbete kantautorea, Nerea Arriolararen bakarrizketa, Ane eta Ainhize kantautoreak, Rap gaua Laizeren eskutik, Ane eta Maddi kantautoreak, bertso afaria Saioa Alkaiza, Miren Artetxe eta Onintza Enbeitarekin, Andrazaharraren manifestua poesia emanaldia... **Haurrentzako** sormen, mugimendu eta lasaitasun espazioak egunero. **Azoka**, erakusketa, eta tomate dastaketa; **Arratiako borrokan** kontaketa ibiltaria; **mobilitate** desobediente...*

“ONGI ETORRI ESKOLARA” PROGRAMA

Nola utzi bizkarra emateari

Dorleta Mikeok esango digu elkarrekin baina nahastu gabe bizi garela, ez dagoela bizikidetzarik bertakoen eta beste jatorri batzuetatik etorritako familien artean. Mikeo eta Lola Boluda Donostiako Egia auzoan, Aitor ikastolako jolastokian, abiaburua izan zuen egitasmoa garatzen ari dira gaur egun: *Ongi etorri eskolara*, kulturartekotasuna ardatz duen programa.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  ELKARREKIN KOOPERATIBA

Arratsaldeko lau eta erdiak dira eta gurasoak haien hurrekin ikastetxeko jolastokian gelditu dira eskolak bukatu ondoren. Guraso euskaldunak euskaldunekin daude; Hego eta Erdialdeko Amerikakoek beste talde bat osatu dute; Asiatik etorritako familiak, mongoliarrak, indiarrak, txinatarrak... desagertu dira. Ez da irudi arrotza, makina bat ikastetxetako eta jolas parkeetako egunerokoa da. Donostiako Egia auzoan Aitor ikastola dago eta kontaktu berri duguna gertatzen ari zitzaizela konturatu ziren han. Beste jatorri batzuetako familiak geroz eta gehiago ari ziren eskolan matrikulatzen eta harremanak deskribatutakoak bezalakoak ziren. Zerbait egiteko beharra sentitu zuten eta kulturantzatasuna landuko zuen batzordea sortu zuten gurasoek. 2014-2015 ikasturte hartan *Familia laguna* programa (ikus 36. orrialdean) jarri zuten abian. Dorleta Mikeo eta Lola Boluda gurasoak izan ziren bete-betean programa garatzen hasi zirenak, konturatu ziren arte modu boluntarioan

aritzeko denbora asko eskatzen zuela.

Donostiako Udalarri programa aurkeztu zioten, dirulaguntzaren bat lortzeko asmotan. Proposamena oso interesgarria iruditu zitzaion eta Mikeo eta Boludarekin harremanetan jarri zen. Gurasoentzako programa izan behar zuena, hezkuntza komunitate osoak lantzekoa bihurtu zen 2016an (*Ongi etorri eskolara*) eta Udalak diruz babestuta Donostiako hainbat ikastetxetan abian jarri zen. Mikeok eta Boludak Elkarrekin kooperatiba sortu zuten hartutako bide berriari ekiteko. Ondoren, Donostiako hainbat ikastetxetan hasitako bidea beste hainbat udalerritara zabaldu da, Zaurutzera, Ordizira eta Andoainera.

BI ALDEEN AHALEGINA

Ongi etorri eskolara egitasmoak hiru helburu ditu. Lehen helburua, ikastetxean izena eman duten familiei sostengua ematea da, harrera egokia egitea. Bigarren helburua eta nagusia, ikastetxeko kulturantzatasuna lantzea da. Denean kulturak ezagutu eta denei balioa



JON URBE / FOKU

eman. Programak Kanadako eredu a du oinarrian eta hala azaldu digu Mikeok: "Kulturantzatasuna kudeatzeko eredu asko daude, apartheidia ere bada eredu bat eta Frantziako eredu asimilazionista beste bat da". Kanadako ereduaren ezaugarri nagusia da etorri direnek eta lehendik hemen daudenek ahalegina egin behar dutela bizikidetzarako. Etorritzen direnek nahitanahiez egiten dute ahalegina, baina gehienetan datorrenari baino ez zaio eskatzen saiatzea. Eredu honetan pertsonak elkar aurkitu behar dute, elkarrekin harremanak sortu, kontuan hartuta bakoitzak bere ibilbide kulturala duela. Batak bestea epaitzetik elkarrenganako enpatia eskatzen du. Mikeok gaur egungo egoera honela deskribatu du: "Koexistentzia egoeran gaude, bizilagunak izan gaitezke, seme-alabak eskola berera eraman ditzakegu, baina ez dugu elkar ezagutzen. Bata besteari bizkarra emanda bizi gara". Eredu horretan kulturak parez pare jartzen dira eta elkar ezagutzen hasten dira. Gero oztopoak etorriko dira, aurreiritziak, estereotipoak... eta horiek gainditzeko moduak aurkitu beharko dira.

Hirugarren helburua familiak euskarara eta euskal kulturara gertura-

tzea da. Haurrak D ereduari ari dira, baina familiek oso urrun dituzte hizkuntza eta euskal kultura. Mikeori galdetu diogu ea nola kudeatzen duten hizkuntzaren gaia, izan ere *Familia la-*

*Komunikazio
hizkuntza euskara
ez bada ere, familia
laguna euskarara
gerturatzeko
hainbat praktika
lantzen dituzte*

guna programak familia euskalduna eta beste jatorri bateko familia jartzen ditu harremanetan eta komunikazio hizkuntza ez da euskara: "Denok egin behar dugu ahalegina. Euskaldunok

urte asko daramatzagu euskaraz bizi ahal izateko bidea jorratzen, baina aldi berean, ikusten genuen hori gauzatu daitekeen lagun esparruari baino eusten ez bagenion gure eremutik kanpo uzten genituela gainerakoak. Esaten badugu ez dugula parte hartuko *Familia laguna* programan euskara ez dagoelako bermatuta, besteak kanpoan utzi ditugu eta hala sentitzen badira ez dira gure hizkuntzara eta kulturara gerturatuko".

Beraz, harremanak gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez izango dira, baina familia euskaldunak jabetu behar dute harremanak egiteko modu hori helburu batzuk lortzeko estrategia dela. Komunikazio hizkuntza euskara ez bada ere, familia laguna euskarara gerturatzeko hainbat praktika lantzen dituzte. Adibidez, agurrak eta hitz solteak euskaraz erabiltzen hasten dira. Sarri kudeatu behar izan duten egoera ezaguna ere kontatu du Mikeok: guraso taldearen whatsappen mezuak euskara hutsean daudelako kexatu da guraso bat. Bada, ondoan duen guraso euskaldunaren lana izango da azaltzea zergatik eusten dioten euskarari, nola eremuz eremu euskarari eusten



Zer da "familia laguna" programa?

2014-2015 ikasturtean jarri zuten abian Donostiako Egia auzoko Aitor ikastolako gurasoek. Ordutik aurrera, Elkarrekin kooperatibak *Ongi etorri eskolara* programaren barruan eskaintzen du hainbat ikastetxetan. Gela bereko familia euskalduna beste jatorri bateko familiarekin harremanetan jartzen da, familia lagun bihurtzen dira modu boluntarioan. Familia euskaldunak ikastetxean eta ikastetxea dagoen inguruan egokitzen lagunduko dio, azalduko dio nola funtzionatzen duen eskolak, gurasoei bidalitako oharrak interpretatzen lagunduko dio eta auzoko liburutegia erakutsiko dio, besteak beste. Hasieran jakintzaren noranzkoa alde batekoa izango bada ere, helburua da nork bere kultura, modu informalean, elkarbanatzea. Hasierako konpainiaren ondotik, garrantzitsuena elkar ezagutzen hastea da. Hurrengo pausoa izango da familia euskaldunak bere sare soziala familia lagunarekin elkarbanatzea, gelako edo parkeko gurasoak aurkeztuz eta zenbait kasutan baita kuadrillako eta familia-sarerako atea ere zabalduz.

Familia lagunak erreferente izan daitezke beste askorentzat eta aurreiritziak eta estereotipoak apurtzen lagundu dezake. Dorleta Mikeok gertaera bat kontatu du hobeto azaltzeko: familia euskaldun batek askotan jasotzen zuen familia lagunaren haurra eskolatik ateratakoan, gurasoak ezin zuelako iritsi. Bada, familia euskalduna konturatu zen berak behar bera zue-nean inoiz ez ziola eskatzen familia lagunari. Hala egiten hasi zen. Behin familia lagunak familia euskaldunaren umea parkera eraman zuen. Familia euskaldunari laster egin zion galdera beste guraso batek: "Zure umea hegoamerikar itxurako pertsona batekin ikusi dut parkean, zaintzailea kontratatu duzue ala?". Familia euskaldunaren erantzuna: "Nik haien haurra zaindu izan dut eta ez duzu halakorik pentsatu nitaz. Ez, ez da zaintzailea, lagunak gara".

ez bazaio hizkuntza galduko den. Mikeok argi du halako arrazoiak azaltzeak duen garrantzia: "Horrelako egoeretan familiek sentitzen dute kanpoan utzi nahi dituztela. Horregatik, arrazoa azaltzea oso garrantzitsua da eta azaldukoan oso ondo ulertzen dute. Baina norbaitek azaldu behar die! Bestela, aurreiritziak eta abar aktibatzen dira". Azalpenak ematea bezain garrantzitsua da euskaraz ulertu ez duenari itzultzen laguntzea edo itzultzaile neuronalaren berri ematea, adibidez.

Mikeok aitor du onena litza-tekeela gurasoek euskara ikastea, eta batzuk hala egiten dute, baina bitartean pentsaera eta jarrerara aldaketak antzematen dira gurasoengan. Euskararen inguruan jarrera positiboa baldin badute seme-alabei transmititzen diete. Mikeok lehen azpimarratu du zein garrantzi duen euskarari eusteko arrazoi sozial eta linguistikoak azaltzeak. Bada, bestelako argibideen berri ematea ere berebizikoa dela uste du, adibidez hainbat jatorritako familiak jabetu daitezela euskarak errazten duela haien seme-alaben aukera berdintasuna euskaldunen haurren parekoa izaten. Euskarak sozializazio prozesua erraztuko die, hizkuntza menperatzea ikasketetarako beharrezkoa da eta lan eremura jauzi egiteko balioko die.

EUSKALDUNAK DAUDE EROSO

Mikeok behin baino gehiagotan entzun du halako komentariarik gurasoren baten ahotik: "Guraso denak hor egoten gara eta bera


izkin batean geratzen da". *Ongi etorri eskolara* programako arduradunak erantzuna prest du: "Eman dezagun Txinara joan naitzela bizitzera. Zer egingo dut eskolako lehenengo egunean, ezagutzen ez ditudan gurasoengana joan eta esan 'Iepa! Ni Dorleta naiz, nahi duzue nire lagun izatea?'. Ez, ezta?". Lehendik bertan direnak ahaldunduta eta eremu erosoan jokatzeko ari direla dio, gizarteak nola funtzionatzen duen badakite. Pertsona horri dagokio etorri berriarengana gerturatzea, hura ez da seguru sentitzen: "Haurrak ikastetxetik ateratakoan gurasoari esango diot 17:00etan plazan geratu gara. Hara etortzen bada taldea aurkeztuko diot. Gaztelania erabiliko dudala? Noski baietz, harrengana heltzeko erabiliko dut eta euskaldunaren errealitatea ezagutarazteko. Malguak izan beharko dugu, gauza batzuetan amore eman beharko dugu, baina beti helburu batekin".

Mikeok uste du hainbat herrialdetan egoerak onera egiten ez badu jendeak hona etortzen jarraituko duela, haien seme-alabentzako etorkizun hobe baten bila. Gaia ez bada lantzen, gerora gatazka egoera konplexuak etorriko direla uste du eta saihestu nahi bada oraintxe lanean hastea beharrezkotzat du: "Elkarri begiratzen hasi behar dugu, elkarri kaixo esaten, elkar ezagutzen. Aurreiritziak puskatu behar ditugu, harremanetan jartzen garenean ez gara ari karritate praktikatzen. Arratsalde pasa gaude gure etxean, txokolatea hartzen. Lagunak egiten ari gara". ●

BABESLETZA:



Liztorrek asmatu zuten egungo papera



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1719. René Antoine Ferchault de Réaumur (1683-1757) zientzialariak ikerlana aurkeztu zuen Frantziar Zientzia Akademian. Réaumurrek arlo asko landu zituen bere bizitzan: fisika, matematika, metalurgia, tenperatura, portzelana... Baina bereziki entomologiaren eremuan egin zituen ekarpenak, eta 1719an akademiako kideei azaldu zien lanak intsektuak ere zituen hizpide, zehazki, liztorrak.

Entomologoa konturatu zen liztorrek egurrezko zuntzez egiten zituztela habiak, eta emaitzak garai hartan oihalez egiten zen paperaren antza handia zuela. Liztorrek han eta hemen egur printza txikiak biltzen zituzten, xehe-xehe egin, listuarekin nahastu eta ore moduko horrekin habiak eraikitzen. Réaumurri bururatu zitzaion liztorrek erabiltzen zituzten lehengaiak eta metodoa kopiatu zitezkeela papera ekoizteko.

“Amerikar liztorrek gurea bezain onak den papera egiten dute; horretarako egur soilezko zuntzak erabiltzen dituzte”, azaldu zuen Frantziar Akademian. “Erakusten digute papera zuzenean landareen zuntzez egin daitekeela, trapuak edo lihoa erabili beharrik gabe. Eta badirudi hainbat motatako egurrez kalitate handiko papera ekoizteko gonbidapena luzatzen ari zaizkigula. Zuntzak gehiago xehatzen baditugu eta ore fin hori erabiltzen badugu, paper bikaina lor dezakegu”. Paperaren kalitateaz gain, kantitateak ere



LA VIE DANS LA NATURE

HAINBAT LIZTOR ESPEZIEK EGUR ZATITXOAK BILDU ETA PAPEREZKO HABIAK EGITEN DITUZTE. XVIII. MENDE HASIERAN, RENÉ ANTOINE FERCHAULT DE RÉAUMUR HORTAZ KONTURATU ZEN, ETA GIZAKIEK PAPEREA EKOIZTEKO LIZTORREN METODOA ERABILTzea PROPOSATU ZUEN.

kezkatzen zuen Arroxelako zientzialaria, inprenta asmatu zutenetik paper eskara geroz eta handiagoa zelako: “Egunez egun paperaren kontsumoa gora egiten ari da, baina lihoaren ekoizpenak ezin du gehiago hazi”. Baso-soiltzea ez zen arazotzat hartzen garai hartan, eta egurra lihoa baino lehengai askoz merkeagoa eta ugariagoa zenez, paper urritasunari aurre egiteko egoki ikusten zuen.

Baina lankideek ez zioten jaramonik egin, eta Réaumurrek bera ere ez zen ideia aurrera eramaten ahalegin du. Hala, egur bulbaz egindako paper ekoizpena ez zen XIX. mendearen erdialdera arte hedatu. Bitartean, askotariko ahaleginak egin zituzten paper eskarari erantzuteko; papera lastoz, ananaz, amiantoz, azaz, patataz... egiten probatu zuten, liztorrei erreparatu gabe. ●



V. MINKUS (NLD)

Neandertalen gaitasun sinbolikoa

2020an, Alemaniako Einhornhöhle kobazuloan, sei koska zituen hezur zati bat aurkitu zutenean, arkeologoek pentsatu zuten koska horiek gure espezieak propio eginak zirela. Orein erraldoi baten apatxeko hezurra egingandako marrek patroia bat zuten, “ziur aski esanahi sinbolikoa zeukaitena”, Dirk Leder arkeologoaren hi-

tzetan. Baina hezurra datatzean ikusi zuten 51.000 urte zituela, eta beraz, ezin zela Homo sapiensen lana izan, espeziea duela 45.000 urte iritsi baitzen Europara. Horrek esan nahi du neandertalen lana izan zela, pentsamendu sinbolikorako gaitasuna zutela eta “haien jokabidea gugandik ueste baino gertuago” zegoela. ●

Lana, zaintza eta militantzia uztartzeko irtenbidea lana berrasmatez denean

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Erabat militantzian bizi ziren garai batean; ondoren, lan ordaindu eta militantzia denborak bereizi zituzten beren egunerokoan; eta ama egin zirenean... beren lanbidea sortzeari ekin zioten, ordura arte militantziaz landu izan zuten feminismoa lanordutan egin ahal izateko. Zer erremedio, lana-militantzia-zaintza hiruki gatazkatsua uztartzen saiatzea malabarrak egitearen modukoa baita. “Oso gustura geunden mugimendu feministan baina bat-batean gure burua hortik kanpo ikusi genuen, ezin genuelako erritmo hori jarraitu. Orain lan egiten dugu guretzat egokiak diren espazio eta ordutegian”, azaldu dute kideek.

“Gu mugimendu feministatik gatoz”, diote harro Parean elkarteko kideek. “Urte asko eman ditugu Irungo mugimendu feministan. Bakoitzak genuen gure lanbidea, eta ama izaten hasi ginen eta zaintza lanak zirela-eta militantziarako espaziorik gabe geratu ginen”. Hiru kide dira Parean elkartean. Horietako bik hiruna ume txiki dituzte, eta beste kidea haurdun dago. Momentu delikatuak daude, beraz, gutzia uztartzeko.

Baina bidea egiten ari dira: hasieran, bakoitzak bere lanbidean zeukan lanaldia murriztu zuen, Parean elkarteko lanei denbora pixka bat eman ahal izateko. Eta pixkanaka, gero eta gehiago eskaini diote Pareani: egun, bi kiderentzat lan ordaindu bakarria da elkarte horretan egiten dutena. Baina oraingoan, zaintza lanei hartzen diete beren eguneroko orduen zati handiena: “Parean elkartean gure lanaldi osoa 32 ordukoa izatea erabaki dugu, zaintza lanei espazioa eman nahi diegulako. Eta hala ere, egun gutako inork ez dauka 32 orduko lan asterik”.

BI FORMAZIOAK: MILITANTZIAKOA ETA AKADEMIKOA

“Guk lehen mugimendu feministan proiektuak egiten genituen militantzietatik, praktikatik eta ilusiotik”. Erakunde-



DANI BLANCO

kin lan egin ahal izateko titulazioa behar zutenez, Berdintasun Masterra egiteari ekin zioten: “Horrela uztartu egin ditugu biak; lehendik genekarren motxila guretzat oso baliotsua da eta tituluek ematen ez dutena ematen du; eta horri titulazio bat gehitu diogu erakundearen aurrean erakusteko badugula lan egiteko aukera”.

Mugimendu feministan ari zirela martxan jarri zituzten proiektu batzuetatik tiraka sortu dute orain beren lanaldiaren barruan egiten duten hauxe.

PASEO INTERAKTIBOAK

“Duela 12 urte inguru konturatu ginen herriko kaleetan ia ez zegoela emakumeen izenik. Herriko historialari batekin udal artxiboan sartu ginen, zenbait izen atera genituen, alderdi politiko guztiekin harremanetan jarri ginen eta txostena helarazi genien izen proposamenekin. Urteen poderioz, guk proposatutako emakumeek kalea dute egun Irunen. Lehen hiru ziren kale izendegian agertzen ziren emakumeak eta orain hamabi, pixka bat aurreratu da, baina badago lana oraindik”.

Emakume horiek kalea izanik ere, ohartu ziren herrian inork ez dakiela haien ekarpenaren berri. Behar horri erantzuteko dokumentala sortu zuten Parean elkartekoek, Irungo eskola guz-

tietan aurkeztu zuten eta biribiltzeko txango bat egin zuten eskola guztiekin.

Txango horren garapen modura, paseo interaktiboak sortu dituzte edozein herritarrentzat: “Gure webgunean badira horrelako paseo batzuk, edonork egin ditzakeenak hirian hainbat geldialdi eginez, eta audio bidez edo PDFan haien historia jaso daiteke”.

ERTZETAKOAK

Feminismoa beti txertatzen dute beren jardunean, baina bestelako eremuak ere jorratzen dituzte: “Orain esku artean dugun proiektua lotuta dago eskola segregazioarekin. Gure proiektuetan migranteen gaia eta adinekoena ere uztartzen saiatzen gara. Finean, ertzetan dauden kolektibo horien alde lan egiteko elkarteak gara, haien ongizatea bilatzen duena”. ●

PAREAN
Elkartea

parean.eus

Zer egiten du: Emakumeen, migranteen eta adinekoen ongizate erreala proiektu berritzaileen bidez lortzea da gure asmoa.

Langile eta bazkideak: 3.

Noiz sortua: elkarteak 2015ean sortu zen, baina bertako langile 2020an jarri ziren.

Egoitza: Irunen.

Harremanetarako:
info@parean.eus

GAKOAK 2021



Gakoak 2021
aldizkariaren
azaleko irudia
Paula Estevezek
egin du.

Nor da gure buruen jabe?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Uste dut inoiz hitz egin dizudala orri honetan lantokiko erosotasunaz, irakurle; nagusi bat gainetik izateak kentzen dizkigun buruhausteez, ardurez. Nahiago dugu besteren mende egon eta haren aginduak bete behar diren lanpostu bat eduki, erabakitzeak aukera eskaintzen diguten beste lantoki batzuetan egon baino. Erosoa? Sarri bai. Sekula ez du usainduko, ordea, buruhaustea buruhauste, askatasunaren lurrin gozorik.

Gure buruen jabeek doa aurtengo *Gakoak*. Astekaririk gabeko abuztua aseko dizun aldizkari potoloa. Burujabetzez. Pluralean, bai. Urte luzez egon da zabaldua burujabetza bat eta bakarraren ideia bazter hauean. Utopikoa batzuen iritziz. Baliteke. Gertu ikusten ez dudaren arren, lor litekeela sinetsi nahi duen horietakoa naizela onartuko dizut, baina bidean lan asko aurreratu daitezkeenaren ustea ere badut. Ahalik eta arlo gehienetan lortutako burujabetza bakoitzaren baturak emango digulako osotasuna. Zertarako behar dugu burujabetza bat eta bakarra, beste guztiak berdin jarraitzen badu?

Gure buruen jabetza berreskuratze-ko emango dizkigute gakoak. Ez da XXI.

mendeko formula berri bat. Ez gara mundua "aurkitzen" ari, gu heltzerako hor ari baitziren beste asko. Dauden teoriak eta praktikak ezagutu ahalko dituzu Argiaren udako argitalpen horretan. Osasun-, zaintza-, finantza-, etxebizitza-, energia- eta abar luze baten burujabetzen inguruak. Herri honetan dauden esperientziak jaso dituzte, eta kanpoan ezagutu ditzakegunak. Norabideak. Abiadura Handiko Trenean garamatzaten buru eta jabe guztien errailetatik atera eta patxadaz irakurtzeko gakoak.

Erreportaje luze eta laburrak aurkituko dituzu bertan, burujabetzak ikuspuntuaren oinarri bezala hartuta. Eta ez hori bakarrik: komiki bat, kultur gomendioak edo Euskal Herrian bertan uda giroan (edo ez) egiteko moduko txango proposamenak ere bai.

Mundua azkar doa, baina orain mende bete pasa erabili ziren hitzek oraindik ere aktualak izaten jarraitzen dute: "Mugitzen ez denak ez ditu kateak sentitzen" (Rosa Luxemburg). Kate batetik baino gehiagotatik lotuta gaude eta ez dira denak batean apurtuko; baina kate bat askatzen den bakoitzean mugitu ahal izango gara gehiago. ●

Burujabetzei eskainitako 2021eko Gakoak aldizkarian aurkituko dugu...

Informazio burujabetza:
editoriala.

Energia burujabetza:
Energia Komunitateak, Hernaniko proiektua, Nafarroako egoera.

Osasun burujabetza:
COVID-19an non dira prebentzioa eta iraukortasuna?

Elikadura burujabetza:
Elikagunea, Elkarlaguntza Sarea eta Ekoalde proiektuak.

Zaintza burujabetza:
zaintza komunitario esperientziak.

Finantza burujabetza:
Olatukooppek sortu duen funts mankomunatuak.

Etxebizitza burujabetza:
Ankurkulu erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiba eta hamar urteko okupazio esperientzia.

Teknologia burujabetza:
Oñatiko Onaro proiektua; plataformekiko menpekotasunaren ondorioak.

Kultura burujabetza

eta, horretaz gain...

Komikia:
Etzidamu, Shu Oterok egina.

Uraren ibilbidea:
zazpi etapako zeharkaldia Euskal Herrian barna.

Kultur gomendioak:
gozatzeko hamabi irakurgai eta hamabi ikusentzunezko.

Abuztuaren 8ko astean jasoko dugu Argia Jendea garenok *Gakoak* etxean, buzoian. Gainerakoek, erosteko sartu argia.eus/azoka-n.

SORGINAK ORRAZTEN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Sorginak ere orrazten omen dira... Baina orraziarekin zer egiten dute; ilea leundu edo harrotu? Bietarako alagalakoa da sorgin-orrazia (*Dipsacus fullonum*). Ilea goitik behera orraztuz leundu, behetik gora, aldiz, harrotu. Sorgin-orraziaren fruitu lehorra da benetako orrazia. Kardua bat da, kardua handienetako eta sendoenetako bat, eta bere fruitua, karda, kardatzeko, leuntzeko nahiz harrotzeko erabili izan da. Hortik *fullonum* abizena, kardariena esan nahi du. Landare osoa da arantzatsua, baina guztiz da hala zurtoin luzeen muturrean duen lore multzoa. Landareari elorria ere deitu izan zaio, eta kardua hori ugaria den tokiari elordia. Oraindik ere erabiltzen da, batik bat artilea kardatzeko, izan ere sorgin-orraziaren zurdek ile zuntzetan ganbera bat sortzen dute, burusiak edo tapakiak beroari eusteko harrotze aproposa. Egundo ez da asmatu harrotze bikain hori egingo duen makinari, bestela galdetu artile kontuetan zurietan mokozurienak diren britainiarrei; halaxe dio Archibald William Smithek *A Gardener's Book of Plant Names* (Landarezalearentzako landareen izenen liburua) 1963ko argitalpenean.

Kardaberatx, astakarlo, astalahar, gardantx, gardantxuri, kardua, astrakal eta



Sorgin-orrazia (*Dipsacus Fullonum*).

abar... izen ugari du kardua honek. Kardua izena latinaren zubitik barrena hizkuntza punikotik edota amazigeratik omen dator, haietan "ziztatu" esateko duten erroetik. Arantzekin ziztatuz kardua bere burua defendatzen du. Bere buruaren zaintza hutsa utzi eta erasora jotzen ere badaki: hostoak binaka ditu elkarren pare-parean, eta oinean lotuta daude, mimiko edo kaliza baten tankerako batekin zurtoina biltzen dutelarik. Mimiko horretan euriaren edo ihintzaren ura biltzen dute. Hortik *Dipsacus* izena, grekoko "dipsa" (egarria) hitzetik datorrena. Baina ez du ur egarri soila. Pilatzen duen ur horretan intsektu asko itotzen da. Itxuraz, landareen historiako ibilbidean intsektuak harrrapatu eta jateko bidearen hasieretako

bat da eta protoharagijalea esaten zaio sorgin-orraziari. Biltzen duen ur hori gero orraztuko duen ilea indartzeko ona dela diote.

Karlomagno VIII. mendearen amaieran edo IX.aren hasieran bere hagintepeko lurraldeetan 94 landare lantzea behartzen zuen, eta tartean zen sorgin-orrazia. Arropatarako ehunak kardatzeko beharrezkoa, baina sendabelar aski ezaguna baita ere. Garai haietan eta duela ez aspaldi arte hain ugaria zen behordunaren ipurdiaren zaintzarako belar oso ona

da. Bere sustraia ardotan egosi, argizari itxura hartu arte xehatu eta enplastu edo txaplatan jarrita uzteko zartadurak eta fistulak sendatzen ditu; baita zauriak xukatu ere. Era berean pixa erraz eginarazteko modu ederra deskribatzen du Andres de Laguna, Julio III.a aita santuaren mediku espainiarrak 1570ean. Honela dio: sorgin-orraziaren buruko hazi heldu bakoitzean hartxo edo nematodo bat bizi da (*Ditylenchus dipsaci*). Hori hartu eta bizi-bizirik zakiletik barrena sartu. François-Joseph Cazin mediku eta fitoterapiaren sustatzaile sutsuak 1850ean idatzi zuen nematodo horri berari buruz, esanez berak hagnetako mina kentzeko horietako batzuk hartu eta mina zuen parean murtzikatzen zituela. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

ABIAN DIRA UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Aspalditik egiten dira Euskal Herriko hainbat tokitan udako azoka ekologikoak. Herrietako kontsumo taldeek eta ekoizpen ekologikoaren aldeko herrialde mailako elkarteek antolatzen dituzte azoka horiek normalki, Arabako Bionekazaritzak, Bizkaiko Ekolurrek eta Gipuzkoako Biolurrek kasu. Horien arteko koordinazio eta komunikazio lanean, berriz, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua ere aritzen da. Aurtengo udako azoka ekologikoen inguruan hitz egin dugu haiekin. Koronabirusa dela-eta ziurgabetasun handia badago ere, azokak egiteko itxaropentsu daude. Lehena egin dute dagoeneko, uztailaren 4an, Elorrion.

PRODUKTU EKOLOGIKOEN ERAKUSLEIHO

“Azoken helburua elikagai ekologikoak ikusaraztea da eta dagoen aniztasun eta kalitatea plazaratzea”, dio Nagore Usabel Kontseiluko komunikazio arduradunak. Ekoizleek ziurtagiri ekologikoa izan behar dute azoketan parte hartu ahal izateko, eta horrez gain, produktuen aniztasuna ere bilatzen dute antolatzaileek: “Esnekien lau mahai izan beharrean, aukera ematen zaio barazkien beste bat jartzeari, adibidez”, dio. Herri bakoitzeko azokan parte hartzen duten ekoizleak aldatuz doaz, guztiek izan dezaten aukera, eta hurbileko nekazari eta abeltzainak izaten dira gehiene-

tan toki bakoitzean.

Produktu ekologikoen geroz eta aukera zabalagoa dago gure inguruan, horixe da Kontseiluak azken hogeitertean jasotako datuek erakusten dutena: 2001ean ekoizpen ekologikoa 61 ekoizle eta 373 hektarea baziren, 2021ean 515 ekoizle eta 7.420 hektarea izatera iritsi dira. Ez da aldaketa makala, baina Kontseilutik diotenez, oraindik asko dago egiteko: “Ekoizpen ekologikoak gizartearen onspena duen arren, gutxiengoa izaten jarraitzen du, eta autonomia erkidegoan, guztira, nekazaritzako lurren %4 lantzen da ekologikoa”, diote. 2030erako konpromisoen artean helburua %25era iristea izanda, urrun ikusten da oraindik zenbaki hori.

AURTENGO UDAN GORDETZEKO DATAK

Jendartean elikagai ekologikoei geroz eta interes handiagoa sumatzen dutela dio Usabelek, eta azokek izaten duten erantzunarekin pozik daude. Gainera, bestelako ekintzak egiteko ere aprobetxatzen dituzte merkatuak. Elorrikoan, esaterako, ekoizpen ekologikoari buruzko erakusketa ibiltaria antolatu zuen Kontseiluak, eta iaz, gutuzi ekologikoen ibilbidea egin zuen Biolurrek.

Bada, uda honetan hurbileko produktu ekologikoak eskuratu nahi dituenak ez du aitzakiarik. ●



NAFARROA

- Iruñeko Ekomerkatua, abuztuak 7 eta irailak 4
- Noaingo Zentzumenen Parkean irailak 24, 25 eta 26

BIZKAIA

- Algorta, irailak 11
- Mungia, irailak 25
- Durango, urriak 9

GIPUZKOA

- Zarautz, abuztuak 20
- Donostia, irailak 4
- Errenteria, irailak 11
- Zerain, irailak 19
- Aretxabaleta, irailak 25
- Eibar, urriak 2
- Leintz-Gatzaga, urriak 17
- Billabona, urriak 31

ARABA

- Zigoitia, uztailak 31
- Gasteiz, urriak 2



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Lurrak ematen duena

Gozatu baratzeak ematen dituen produktuez eta presta zaitetz barazki berriak landatzeko.

[Online denda](#)



“Amaitu da betiko musikaren hegemonia”

Tatxers

Hiruzpalau amets larri EPa atera berri du Iruñeko Tatxers taldeak, maketako abestietan jada sumatzen zen bidea harago eramanez: gitarra garbiko punk-oi! doinuak, baina iheskorak, belarria zorrotzuz gero genero bakarrean sailkatzeko lanak ematen dituzten horietakoak. Jon Salinas eta Martin Ziriza kideekin elkartu gara, eta solasean hasi orduko atera dira hizpidera panfletismoa, beren belaunaldia, Iruñeko musika eszena berria, eta beste hainbat kontu.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Hau dena lehertzeaz zela, iazko otsailan, *Garaipen kutrea* maketa atera zuten Tatxers. Ez zuten izan hura zuzenekoan defendatzeko aukerarik, eta pandemia garaia probestu zuten abesti gehiago egiteko. *Zure kebapa* kantua argitaratu zuten lehendabizi, Chill Mafiakoe-kin batera: “Gehiengoak orduan ezagutu gintuen”. Gero, *Itxoiten dugun bitartean* singlea atera zuten *Kaosa Euskal Herrian* punk-oi! bilduman, nahi baino soinu distortsionatuagoz grabatua, baina harrera ona izan zuena, edonola ere. Azkenik, *Hiruzpalau amets larri* EPa kaleratu berri dute, batere presarik gabe. “Joan den azarorako eginda genituen abestiok, baina mantso dabil guztia: soinu estudioak, binilo fabrikak... bost hilabete behar izan ditugu disko fisikoa ateratzeko”, azaldu dute Jon Salinas “Sali” baxulariak eta Martin Ziriza gitarristak (Iruñea, 1999). Bilbon bizi da Salinas –Arte Ederren azken urtea amaitu berri du, eta pinturako masterra egiten hasiko da laster–, eta Gasteizen igarotzen du astea Zirizak – Historiako gradua finitu berri du gizarte antolaketaren aldatetari buruzko gradu amaierako lana entregatzearekin bat–. Hirugarren kidea –Iñigo Soria bateria jotzailea– Iruñean bizi denez, apenas izaten dute hirurak elkartzeko aukerarik: “Asteburu gutxi ba-

tzuetan soilik entseatzten dugu”. Gauzak horrela, etxetik aurreratu behar izaten dute lana. Audioz josita daukate taldeko Whatsapp-a, eta elkartzen diren apurretan forma definitiboa ematen diete aurreraz aski egituratuta izan ohi dituzten proposamenei. Galderei erantzuteko ere ez zaie etorririk falta, eta erreleboka jardun dute ordubetean. “Ez genuen espero kontu hauei buruz hizketan bukatuko genuenik”, aitortu dute amaitutakoan.

Noiz eta nola elkartu zineten?

Salinas: Martinek eta biok Iturramako institutuan ikasi genuen, eta Acera ize-neko beste talde bat geneukan. Rock klasikoagoa egiten genuen, Marea, Barricada, eta estilo horretako gauzak [barrez]. Soria aspalditik ezagutzen genuen –bera punk eszenatik dator–, eta talderik gabe zegoela aprobetxatuz, Arrosadiako festetan harengana gerturatu eta proposatu genion: “Sekulako oi! taldea egin behar diagu!”. Eta konbentzitu genuen.

Ziriza: Esan genion oi! talde bat egin nahi genuela, baina ez hain ortodoxoa. Hasieratik genuen argi hori –*Garaipen kutrea* maketan uste dut nabaritzen dela–, eta denbora igaro ahala, gero eta argiago.

S: 18-19 urte genituen, eta musika anglosaxoia entzuten hasi ginen, etengabe:

post-punka, brit-popa, The Clichés edota Stiff Little Fingers bezalako taldeak... Gainera, Bilbora iritsi berri nintzen, eta hango eszenak txunditu ninduen. Iruñean betiko punk rocka zen nagusi.

Z: Gu eszena horretan hezi gara, eta ez diogu uko egiten. Baina garaiak aldatu dira, orain dena askoz ere eklektikoagoa da, eta estilo zurrun baten barruan ez gaude eroso.

Bai, *Garaipen kutrea* maketan behintzat askotariko oihartzunak sumatzen dira: bistakoak zenbait –Perkeleren tankerako oi! talde melodikoak–, eta hain agerikoak ez diren beste zenbait. Adibidez, *Aitona* abestiaren estribilloak Balerdi Balerdi gogorarazi dit.

S: Hori guretzat sekulako lorea da.

Z: Denetarik esan digute. Ezagutzen ez genituen erreferentziak bota dizkigu jendeak, eta hori oso aberasgarria da. Guri gitarra garbiak gustatzen zaizkigu, *reverb* handikoak. Soriarengana The Movement taldea aipatuz joan ginen, haien antzeko zerbait egin nahi genuela esanez. Eta hala hasi ginen, gainera, abesti baten bertsoia eginez. Baina laster denon erreferentziak naturalki nahastu ziren, eta askoz ere interesgarriagoa da hori.





Ekzerretara Martin Ziriza, eta eskuinetara Jon Salinas.



EP berrian letra esplizituetatik urrundu zarete pixka bat. Maketan, aldiz, mezu nahiko zuzenak kantatzen dituzue, sarri klase gatazkarekin lotutakoak - Bidean galduta abestian, kasurako-.

Z: Pixka bat damutzen naiz letra horretaz: panfleteroegia da [barrez]. Baina badaukagu kezka hori, noski. Sozialdemokrazia instituzionalak ez du gizartearen ehuneko handi bat ordezkutzen. Estatuari begira daude beste inora baino gehiago, eta erretratatuak geldituko dira legegintzaldi hau amaitzean. Gu 1999an jaioak gara, eta krisia besterik ez dugu bizi izan: 2008koa, gaur egungoa, eta etorriko diren guztiak. Ikusten da hau ziklikoa dela, eta Ongizate Estatua ez dela existitzen. Agian ikuspegi partziala daukat eta ingurura begira bakarrik ari naiz hizketan, baina sentsazioa daukat gure belaunaldiak gero eta garbiago ikusten duela indar guztiak politika instituzionalera bideratzeak zer muga dituen, eta joera izango duela, adibidez, gero eta gutxiago bozkatzeko. Edonola ere, bai, nik eduki dut letra esplizituak egiteko joera, eta Saliren eraginez ari naiz pixkanaka beste zerbait bilatzen.

S: Ez pentsa, niretzat marroia da letrak egitea, askoz ere errazagoa egiten zait musika sortzea. Baina aurrean letrak egiteko gogoia piztu zait, eta saiatzen naiz nire iritziei erreparatu beharrean arreta beste zerbaitetan jartzen: irudi bat, eszena bat, leku bat... nahiago dut hala-koak iradokitzea, ideia esplizituak bere

horretan botatzea baino.

Z: Askoz aberasgarriagoa da, eta ederra-goa ere bai. Letrei neurria hartzea kosta egiten da, eta horregatik jotzen duzu hasieran patroi batzuk jarraituzera. Baina hasi behar dugu hori ere astintzen. Betiko musika eszenaren gabeziak izan da: talde guztiak uzten dute letra amaierarako. Gure kasuan, saiatzen gara letrak edo Salik edo nik egiten, baina nahasi gabe. Idazteko modu desberdinak dauzkagunez, hobe da horrela.

“

Mainstreamarena beste mundu bat da; anbiziorik badugu, horrekin amaitzea da bat. Ahal den guztia egingo dugu horren aurka egiteko”

Martin Ziriza

Orain 10-15 urte punk-oi! eszena oso indartsu zegoen -Gipuzkoan bereziki-. Egun, nola ikusten duzue?

Z: Talde asko gaude orain ere. Zalantza daukat, halere, mugimendu bezala oi-

nordekorik izango ote duen. Punka -jarrera edo nortasun bezala- mantenduko da, dudarik gabe, baina ez dakit estetika zehatz horrek bere horretan iraungo duen, ea gehiago garatzeko marjinarik ote duen oraindik. Sentsazioa daukat gero eta talde gehiago ari direla sortzen estetika ortodoxoan kabitzen ez direnak, eta punk-oi! eszena ere -gainontzeko guztia bezala- aniztasunerantz doala ezinbestean.

S: Chill Mafiakoak, adibidez, oso punkiak izan dira, eta halaxe jarraitzen dute, nahiz eta beste *rollo* batean egon.

Zuen belaunaldia “zazpi ironia kaparekin” jantzen dela aipatu zuen Chill Mafiako Beñat Rodrigok elkarrizketa batean. Orokorkeria izan daiteke, baina irudipena daukat jarrera zinikoa eta politizazioa -sarri antagonikotzat jotzen direnak- bateragarri bezala bizi dituzuela, zenbait behintzat.

Z: Gauza bat da lagunartea -eta hor baikoitzak izan ditzake nahi adina ironia kapa-, eta beste bat da politika -eta hor zintzoa izan behar da-. Politikak serioa izan behar du, gauzei ondo aurre egin, ideiak zintzotasunez esan, printzipioekin eta erantzukizunez. Lagunartea, aldiz, esparru desberdina da niretzat. Eta musika ere bai. Taldeek hobe luke te politika gutxiago eta ironia pixka bat gehiago, eta politikan dabilzanek, ironia gutxiago eta politika gehiago.



S: Gainera, musika talde baten politizazio maila kantatzen dituen mezuekin lotu ohi da, baina, egiaz, beste nonbait dago: non jotzen duzun, nola jokatzeko duzun... halakoetan gelditzen da agerian zure politika. Artearen lengoia autoerreferentziala da: pinturak pinturaz hitz egiten du, musikak musikaz, eta hori egiten dutelarik, politikoak izaten ari dira. Ez dago bestelako eduki politikorik txertatzen aritu beharrik. Horretarako, sar zaitez kolektibo batean. Gu musikariak gara.

Z: Ez dakit garaien sintoma den, baina gazteok ironia muturrera eramaten dugunean izugarri infantilizatzen gaituzte. ETBn, Gaztea-n, eta halakoetan, ez daukate gazteoi buruzko arrastorik ere. Beñat Rodrigo gonbidatzen dute eta txotxongilo bat balitz bezala hitz egiten diote: "Zein ondo, saltsa pixka bat jartzera dator". Infantilizazio hutsa da. Ez dakite Rodrigok zer pentsatzen duen, zer egin nahi duen... Ez dakite kontzientzia politikoa handia duela, eta behar denean oso serioa dela. Hark, ordea, hara joatean, badaki berak ETBri adina edo gehiago mesede egiten diola ETBk berari.

Zuek ere kolaboratu zenuten Chill Mafiarekin, Zure Kebapa abestian. Nola sortu zen hura?

S: Arratsalde bakar batean. Lehengo udan, berrogeialdiaren ostean, Rodrigok bere etxera gonbidatu gintuen. Garagardo batzuekin bere logelan sartu, letra bat inprobisatu... eta kito. Agian zer edo zer

moldatuko nukeen, baina azkenean bere horretan utzi genuen. Ez genekien argitaratuko zutenik. Orain dirua eskatu behar diegu [barrez].

Z: Ez genekien *mixtape* bat aterako zutenik ere, pentsa. Uste genuen, orain arte bezala, abesti solteak ateratzen jarraituko zutela. Gordean zeukaten diskoarena, eta harritura gelditu ginen. Baina izugarri pozten gara ondo doakielako.

Orain ahoz aho dabil Iruñeko musika eszena aberatsa. Hainbesterako al da? Inguruko zein talde sentitzen dituzue gertuko?

S: Bilakaera natural samarra izan da, nik uste. Lehengo eszena serioa astintzeko beharra zegoen. Tijuana in Blue-ren jarraera aipatzen nuen nik askotan, tontoarena gehiago egin behar zela aldarrikatzeko. Chill Mafiakoak eta Ibil Bedikoak aspaldiko lagunak dira...

Z: Hor dago Burutik taldea ere, apustu oso berezia egiten duena. Edo Skabidean, edo Herdoil, edo Attürri...

“

Non jotzen duzun, nola jokatzeko duzun... halakoetan gelditzen da agerian zure politika. Ez dago bestelako eduki politikorik txertatzen aritu beharrik. Horretarako, sar zaitez kolektibo batean”

Jon Salinas

Apustu estetiko oso desberdinak dituzten taldeak dirudite, itxura batean.

S: Ezaugarri batek batzen gaitu: musikaren oso frikiak gara guztiok.

Z: Eta, bestalde, eszena berri honen atzean gogoeta kolektibo asko daude, ordu luzeetako elkarrizketak musikari buruz, inguruan gertatzen zenari buruz. Eta denok ados ginen diagnostikoan: gabezia bat zegoen estetikoki, gogoetetan, letretan. Gazteak gara, baina badugu

maitasunean esperientzia, eta, adibidez, horri buruz ez zuen inork abesten. Dena zen panfleteroegia, eta jakina denez, aldarrikapen zuzenek konbentzituak konbentzitzeko baizik ez dute balio. Egungo errealitatea islatzen saiatuz, aldiz, jende gehiagorengana iritsi zaitezke. Guk letra politikoak egiten ditugu, baina ez nahita, hortik ezin garelako atera baizik. Gainera, ikusi da jendeak aldaketa eskatzen zuela. Amaitu da betiko musikaren hegemonia. Begiratu Chill Mafiari: uste zuten Iruñea ingurukoengana bakarrik iritsiko zirela, eta ikusi da sekulako entzuleria potentziala zeukatela.

Punk eszena tradizionalarekiko ez ezik, mainstreamarekiko erreakzioa ere ez al da sumatzen honetan guztian?

Z: Zalantzarik gabe, askoz ere identifikatuago sentitzen naiz betiko punk eszenarekin. Hortik gatoz, oso harreman ona daukagu talde pila batekin, eta *Kaos Euskal Herrian* bilduman atera dugu kantu bat, adibidez. *Mainstream*arena beste mundu bat da; zirkulu itxi bat: Vendettak uzten du, baina abeslariak talde berria sortzen du eta segituan Gaztean jartzen dute. Betagarrik uzten du, baina abeslariak talde berria sortzen du, eta berdin. Zirkulu horretan sartzea zaila da, baina hortik ateratzea ere bai. Anbizioz badugu, horrekin amaitzea da bat. Ahal den guztia egingo dugu horren aurka egiteko.

EP berriko aurrerapenak –Goizean oskorri abestiak– sekulako arrakasta izan du. Espero al zenuten?

S: Grabatzerako bagenekien *hit*-a hori zela. EPko nire gustukoena da.

Z: Banuen abestian konfiantza. Espero nuen arrakasta pixka bat edukitzea, ez hainbeste kuantitatiboa, baizik eta jende bati iristea. Eta zenbaki onak izaten ari bada, ezin hobe. Baina nik EP osoan sinesten dut: lau abesti desberdin dira, baina laurak dute zerbait. Ea zer harrera duen.

Hurrengo kontzertuak non?

Z: Udan dezente ari gara jotzen –Lekunberrin, Errekaorren, Gasteizko Lakuan, Donostiako Mogambon...– baina nahi genukeena baino gutxiago. Saiatzen ari gara konexio berezia dugun taldeekin batera jotzen: Blessure, Toc, Pogrom, eta beste. Oraingoan, lotuta daukagu hilaren 23an Bergarako Kartzela Zaharrean joko duguna, Attürri taldekoekin batera. ●

E-1027

MODERNISMO

EZ-HEROIKOA

E-1027 izen enigmatikoa darama Eileen Gray diseinatzaile eta arkitektoak 1926-1929 bitartean Frantziako hegoaldean eraiki zuen etxebizitzak. Jean Badovici lagun arkitektoarentzako eraiki zuen etxe ikoniko hori, eta altzari guztiak eta barnealdeko dekorazioa Grayk berak proiektatu zituen. Beraz, E-1027 obra integral gisa sortu zuen arkitekto autodidakta izan zen Gray, eta garaiko estilo modernistaren jarraibideak jarraituz eraiki bazuen ere, haren funtzionalitatea eta bizigarritasuna lehenetsi zituen. Mediterraneoko *villa* honi buruz hitz egitea, Eileen Grayri arkitekturaren historian eman beharreko lekua aldarrikatzea da.

 JONE ALAITZ URIARTE  ARCHIVE EILEEN GRAY

Euskadiko Arkitektura Institutuak (EAI) Eileen Gray (Enniscorthy, Irlanda 1878 – Paris, Frantzia 1976) arkitektoari eta altzari diseinatzaileari eskaini dio udako erakusketa. Austin, Berlin eta Portotik pasa ondoren, Donostiako EAI-k Grayren E-1027 obra arkitektonikoa hartu du aztergai, bide batez arkitekturaren historia kanonikoari modu kritikoa begiratzeko gonbitea eginez. Erakusketak Eileen Grayren lana dagokion testuinguruan jartzen du, eta Badovicik editatzen zuen *L'Architecture Vivante (Arkitektura bizia)* aldizkari mitikoaren *Maison en Bord de Mer (Etxea itsasoaren ondoan)* zenbakiaren bitartez, bertako plano, altxaera eta argazkiak dira erakusketaren erritmoa markatzen dutenak. Ibilbidearen bukaeran, E-1027ko logela nagusia 1:1 eskalan berreraikia aurkituko du bisitariak, eta espazio horretarako zehazki diseinatu ziren hamalau altzariak estreinakoz erakutsi dira.

Eileen Gray Parisen finkatu zen nahiko gazte zela, eta altzarien diseinuan nabar-

mentzen hasi zen. Trebezia handia erakutsi zuen Asiako tradizioetik zetozen altzari lakatuak Mendebaldeko estilo eta gustotara egokitzen. Berehala, Grayren forma sotilezko altzari lakatuak Parisko etxe aberatsenetako saloi eta logelak apaindu zituzten. Bide horretatik, 1922. urtean Jean Désert dekorazio denda ireki zuen, hark diseinatutako altzariak, ehunak eta alfonbrak salgai jarri. Bere ehungintzak eta sentsualitatez egindako altzariak arreta eman zioten frantziar abangoardiari, eta metal tubularrez egindako mahai eta besaulkiak laster bilakatu ziren bere estiloaren zigilu. Zentzu honetan, Charlottek Perriad diseinatzaileak aipatu zuen bezala, zementuak arkitekturaren piztu zuen iraultzaren parekoa izan zen altzarigintzan metala erabiltzen hastea.

Ordurako Gray Badoviciren eraikuntzetan kolaboratzen hasia zen, eta elkarlan horren testuinguruan sortu zen E-1027 etxea eraikitzekeo proiektua, Badoviciren udako etxea izango zena. Grayk aukeratu eta ordaindu zuen lur-saila: Nizatik ordu erdira zegoen gune

harritsu eta malkartsua, Mediterraneo itsasotik 30 metrotara altxatzen zen gune isolatu batean kokatuta. Hiru urtez egon zen Gray Roquebrune Saint-Martin-en obraren gidaritza eramaten Badovicirekin batera, eraikuntzaren kanpoaldeko –fatxada– ezaugarriari bezainbesteko garrantzia eman barrualdeko espazioaren diseinuari eta antolaketazari, oso jakitun baitzen etxearen egunerokotasuna lehenetsi beharreko ezaugarria zela. Zentzu horretan, askotan kritikoa ageri zen, uste baitzuen kanpoaldeko arkitekturek abangoardiako arkitektoak bereganatuak zituela barrualdearen kaltetan, etxe bat ikusmenaren atseginerako sortu behar balitz bezala, biztanleen ongizaterako baino.

Badovicik aldiz, estilo modernista edo internazionala barneratuta zeukan eta Le Corbusierrek *Arkitektura Modernoaren bost puntuak*-en idatzitakoak txertatu zituen; adibidez, gela nagusia pilareen (Pilotis) gainean eraiki zuen eta espiral formako eskailera etxeko teilaturaino heltzen zen. 1929an amaitu zuten



etxea, Mediterraneo itsasora parez pare irekitzen zen eraikuntza sinplea, funtzionala eta arrazionala. Argiak etxean barrena egiten zuen ibilbideak, barnealdeko espazioen trataerak eta etxearen orientazioak gerora eredu gisa funtzionatuko zuten. Grayk uste zuen etxea barrutik kanpora proiektatu behar zela, bizi beharrak kontutan hartuz eta ez kanpoaldeko fatxada baten inposizioz. Eta horrela aritu zen bera.

Badovicik behin baino gehiagotan gonbidatu zituen E-1027 etxera Le Corbusierrek eta haren emaztea, Ivonne. Arkitekto suitzarrak denboraldi luzeak pasatzen zituen bertan, “horrenbeste miresten dudan etxe ederrean”, Grayri 1938an bidali zion postal batean zioen bezala. Oporraldi batzuen ostean, etxera bueltatu eta Le Corbusierrek etxeko hormetan margotu zituen zortzi mural koloretsu aurkitu zituen Badovicik, inolako baimenik eskatu gabe egindakoak. Le Corbusierren ustetan, horma triste eta hutsal batzuei faborea egin zien bere *grafitiak* –hala deitu zien berak– bertan

margotuz. Badovici eta Grayren iritziz, ekintza bandalikoak izan zen Le Corbusierrek etxe horretan egindakoa eta gertakari horrek betirako etsaitu zituen.

Puntu horretan hasten da, Beatriz Colomina arkitektoak eta teorialariak azpimarratu duen bezala, Le Corbusierrek etxe horrekiko izan zuen obsesioa. Askok dira uste dutenak –Colomina barne– suitzarrak muralak baliatu zituela etxe horretako arkitektura ezegonkor-tu eta hiltzeko arma gisa. Izan ere, bere margo itzelak bertan izanda, arkitekturaren historialari askok uste izan dute etxea bera Le Corbusierrek eraikitakoa zela. Uste hori indartzen lagundu zuten Le Corbusierrek muralak margotzen ari zela ateratako dozenaka argazkik, eta argazki horiek bere *Oeuvre complète (Obra osoa)* liburukian txertatu izanak. Hori guztia gutxi baltitz, 1952 urtean, Le Cabanon etxola famatua eraiki zuen Grayren lursailaren mugan, leiho bakarra eraikiz, zeinak Mediterraneo itsasoaren edertasuna eta Grayren etxea markotzatzen zituen. Behin Badovici hilda,

suitzarrak bere muralak babesteko asmoz –edo aitzakiaz– zerua eta lurra mugitu zituen E-1027 eros zedin, ehundaka eskutitz idatzi zituen etxe hori babestu egin behar zela erregutuz eta azkenean, 1960. urtean, lortu zuen bere lagun Marie-Louise Schelbertek etxea enkante batean erostea. Operazio horien guztien ondorioz, Grayren izena itxuragabetuz doa, ezabatuz, gizonen arteko lehia absurdoan. 1965an, Le Corbusier E-1027 etxe parean hil zen, igerian zihola bihotzkeoak jota.

E-1027 izan zen Grayk Badovicirekin batera egindako etxea, baina ez Grayk egindako bakarra. Castellar-en Tempe à Pailla oporretarako etxe txikia eraiki zuen, oraingo honetan berarentzat izango zena, eta 50eko hamarkadan Saint-Tropez-en Lou Pérou, soiltasuna eta minimalismoa sinbolizatzen dituen etxebizitza. Bada garaia Grayri lekua egiteko (beste hainbeste emakume arkitekto bezala) gizonen arrakastaz soilik hitz egiten duen arkitektura modernoaren historian. ●



LIBURUA

Berrikuste bat



JON URBE / FOKU



BIDEA ETA ZAURIA ANTOLOGIA

BALEA ZURIA, 2021

IGOR ESTANKONA

Beste antologia alferreko bat, esan-
go luke nonork. Unibertitate es-
parruko lan zentzubako bat, agian.
Poeten hautaketa ere duda-mudakoa,
eta ikuspuntu partzial horrekin nekez
atera daitekeela ondorioz. Baina hara
non, Jon Kortazar eta Paloma Rodríguez-
Miñambresen *Bidea eta zauria, sei poeta
(2000-2019)*, Balea Zuriak oraintxe ar-
gitaratu berria, begitandu zaigu ibilian
egin ohi den geldialdi intelektual horie-
tako bat: "Irakurtzen ari zaren lan ho-
nen iturria 2020aren hasieran Badajoz-
en argiratzten den *Sudoeste* aldizkariko
zuzendari Antonio Sáez Delgadok egin
zigun dei bat da". Eta horrela, eleberri
baten edo kronika baten hasiera.

Eta hari horri tiraka Jon Kortazar eta

Paloma Rodríguez-Miñambresen hitzau-
rre aski interesgarria, datuz hornitua
eta uneka harrigarria ondu dute bildu-
ma honen iturri eta era berean helburu
dena: "1980tik gaur arte, lau urtetan ez
da poeten jaiotzarik erregistratu: 1987,
1989, 1992 eta 1995ean. Are tristeagoa,
2003 eta 2005 urteetan 1980tik aurrera
jaiotako poeta multzoak ez zuen obra-
rik argitaratu". Izan ere, autoreen ustez,
poesia apurka-apurka itzaltzen ari den
garra da Euskal Herrian, bere helburu
nazional-berpizkundekoa, bere helburu
apurtzailea, bere helburu estetikoak gal-
duxe dituen adierazpidea izaki. Horri
erantsiz gero kritika literario serio ba-
ten falta, bada, bistaratzen den panora-
ma ez da oso itxaropentsua.

Dena dela, gero poetek hitz egiten
dute: Peru Magdalena, Jon Benito, Hasier
Larretxea, Ione Gorostarzu, Iñigo Astiz eta
Beatriz Chivite. Lehen hirurak, agian, ezin
ukitu litezkeen gauzetaz ari dira gehiago
eta azken hirurak, beharbada, introspek-
zioa jazoeretan bilatu-zaleak dira. Denak
dira 1980tik aitzina jaiotakoak, denak irakurri
ditugu, denek dute bilatzen gu bat, denek
amesten etorkizuna, su hori: "Muino ur-
peratuak ikusten ditugu paisaian/ lurrean
iragazten zaizkigun oinetakoak/ eta gure
begientzat desagertu den kea" (Jon Beni-
to, *Aingurak erreketan*, Susa, 2001). Edo
Felipe Juaristik liburuko azken hitzean
dioen legez, "unibertsoa hartu nahi dute".
Hona hemen gida antzeko bat bihar-etzi
etorriko diren euskal poeta guztientzat. ●



MUSIKA

Ondo zahartzeko formula



ROSA ZOZAYA

XALBA RAMIREZ

Indio zaharren antzera, eguzkiari dantza egin dio berriz ere -Gailu hirukote andoaindarrak. “Zaharren ahotsak urrundik ari zaizkit” bertso eta sample-rren bitartez, palindromo eta jolasen bidez kaleratu dute, 20 urte geroago, bigarren lana *Begiak, egiak ba ote?* (BideHuts, 2021).

BAP! talde mitikoaren errautsetatik jaio zen -Gailu, Mikel Abregoren kantu eta ideiei forma emateko. Samplerrean oinarritutako kantuei gorputza eman zioten orduan bere taldekide eta lagunak (Okene eta Drake, nola ez), eta formula berarekin datoz oraingoan. Hardcore eta autogestio sustraietatik eraikitako house, techno, hip-hop eta spoken word fusioarekin datozkigu, hau da, musika beltzaren erreinu erraldoietik.

Euskal Gil Scott-Heron-ek esana digu: iraultza ez da telebistan agertuko. Poesia libururik gabeko poetaren antzera, afroamerikar spoken word-etik gertu, letrez arduratu da Okene Eneko palin-

dromo zalea. Bere testuez gain, Zebulon Wurlitzer, K. Ttipia, Joxmiel Ximorra, Xabier Montoia, BiGara eta Alejandra Pizarnick-enak topatu ditzakegu. Diskoa dantzatzekoa izateaz gain, arretaz entzutekoa eta irakurtzekoa da.

XX. mende Erdiko Paulo “Txikia”-ren bertsoen bidez ia ezer ez dela aldatu gogora ekartzen digu hirukoteak: “Lege gogorak dauzka munduak gizakiontzat jarriak, kejosu dira arrantzaleak ta berdin nekazariak. Gora egingo du berriz ere behar dugun janariak, eta azkenean kastigu dena eramango du erriak”. Babarruna eta Aza Popularra aldarrikatzeko gogoz berriz ere.

Jim Jarmusch-en *Down by law* filma zoragarriari omenaldia egiten diote “*I scream, you scream, we all scream for ice-cream*” abestuz. Joxe Ripiauk Itoizen *Egun Motela* bertsoia egiterakoan ere sampleatu zuen esaldia. Oker ez bana- go, Mikel Abregok disko horretan kolaboratu zuen *Missing* kantuan atabal



BEGIAK, EGIK BA OTE? -GAILU

BIDEHUTS, 2021

danbateko biziarekin. Iñigo Muguruzari egindako zeharkako omenaldia ikusten dut (ikus nahi dut) hor.

Diskoa abangoardiatzat –edo okerra- go, urbanotzat!– jotzen duenari pobrea irudituko zaio. Ez da zerbait “moderno” egiteko saiakera, ez dago inongo modetan sailkatzeko beharrera kamustuta. Sleaford Mods-en post-punketik gertu- go daude, traparen gorakadatik baino. Fermin Muguruzak dioen bezala, rural electro-hardcorea da eta estilo horretan onenak dira, ezinbestean.

Horren ongi zahartzeko formula galdetu diegu. Hirukoteak ez du zalantza egingo: “Arikkiriak elkartu, xistima apurtu, ta bota ximorra”. Datorren lane- rako beste 20 urte itxaroteko prest.

PD: -Gailu ezin da Googlen bilatu hasierako gidoia kentzen ez bazaio, ikur horrek jarraian datorrena ez bilatzeko agindua ematen duelako. Taldearen paradoxa antikomertzial bikaina iruditu zait. ●



J Martina, Gernikako Astran emandako kontzertua. Irudia: Astra

Desinhibiziaren zain

MARTA SENDIU ZULAIKA

Urrunagako urtegiak J Martina hirukotea hartu du gaurkoan. Kontzertuak edo ekimen kulturalak egitea batere ohikoa ez den Legutioko ur bazterrean antolatu dute gaztetxeko IV. urteurrena. Udaberri eta uda garaietako beroak eragindako izerdi itsaskorretik urrun sumatzen da gaurko giroa, ateri dago, baina termometroaren merkurioak ez du gora egiteko asmorik.

Gauaren iluntasun beltzak hartu ditu arabar Gorbeialdeko bazterrak, baina Barañain eta Larrabetzuko Javi, Kattalin eta Anek ekarritako fokuek argizatzen dute gaua. Afaria eta geroko bertso tartearen ostean, J Martinakoek hartu dute oholta. Bertsoa eta autotunea bata besteari segika ari dira gaurkoan, pentsaezina izango zen duela urte gutxi, ezta? Eta, gainera, ezberdintasunean antza

duzen bi genero mota hauek elkar erakartzen dute.

Teklatua, gitarra eta bi mikrofono besterik ez. Sinpletasunaren edertasuna goraiatzen dute. Mini gona eta kaputxadun *crop top*-a jertsearekin nahasten dituzte J Martinakoek. Estetika pentsatua eta landua dutela agerikoa da, gaurkotasunez jantzita daude.

Oholtza gainera igo eta gaueko ihintza gainetik kentzeko nahian dantzan jarri dira larrabetzuarrak. *Desira, Su, Beste Zerbait, Mundu Zahar* eta *Oraindik ez* abestiekin berotu dute bertso osteko giroa. Haiek ere bertso sorta bat abestu dute, baina noski autotunearekin batera. Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak egindako *Lagun galduaren geografia* kantaren bertsoa abestu dute. Nahasketa berezi bezain berritatzailak ondo

J MARTINA

NOIZ: uztailak 10


NON: Legutioko Urrunagan

ematen dio belarriari eta entzuleen artean nabari da, belaunaldi arteko proposamen garaikidearen beharra dagoela.

Laguntasunez eta konplizitatez jositako gau-giro honetan ikusleei eskainitako abesti bat egin dute. Dellafuentek eta Novedades Carminhak elkarlanean egindako *Ya no te veo* abestiaren bertsoak jendea dantzan jarri du. Aulkitik altxatu eta mugitzeko grina eta gogoia usaintzen dira, baina egoerak oraindik ez du desinhibiziorako aukerarik ematen. Hala ere, aulki gainean dantzatzen jarri denik ere badago. Festarako irrika sumatzen da, gorputzek desinhibiziorako gogoia dute, baita J Martinakoek ere. Eserita egotea beharrezkoa izango ez den zuzeneko baten ametsa noiz etorriko zain jarraitzen dugu Spotifyko *playlist*-a entzun bitartean. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Lehengusua. / Agurtzeko hitza. **2.** Leize, amildegia. / **Argazkiko uhartea.** **3.** Simple bihurtu. **4.** Beti presaka dabilena. **5.** Hitza, berba. / Izaki zelulabakar mikroskopiko. **6.** Bagoiz osatutako garraiobide. / Garaitzera behartu. **7.** Turista. / Kataluniako herritar. **8.** Biskatu. / Sakontasunaren neurria.

GOITIK BEHERA:

1. ... egin, hozkatu. / Oihal fin eta garden. **2.** Nafarroako herria. / Erdizka. **3.** Lañoak, tolesgabeak. **4.** Inprimatzeko teknika. **5.** Bizkaiko ibaia. / Idi hitzak hitz-elkarketan hartzen duen forma. **6.** Dozena-erdi (alderantziz). / Egunaren zati ilun. **7.** Atzapar. **8.** Gauari dagokiona, gaueko. **9.** Oinarritzko edari. / Landare mota. **10.** Bakoitzaren jokamolde. / Portua (alderantziz). **11.** Makila lodi. **12.** Erara. **13.** Jarraitzaile. **14.** Argizagi. **15.** Hankaren atala.

Sudokua

ERRAZA



| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|--|---|---|
| | | 4 | | 9 | | | | 1 | |
| 2 | | | 8 | | | | | 3 | 6 |
| 8 | | | | 4 | | 2 | | | |
| | | | 3 | 6 | 5 | 9 | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | 2 | 7 | 1 | 9 | | | | |
| | | 6 | | 5 | | | | | 1 |
| 1 | 8 | | | | 6 | | | | 4 |
| | 3 | | | 2 | | 8 | | | |

ZAILA

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|--|---|---|
| | | | 8 | | | | | | 2 |
| | | | | 7 | 2 | 9 | | | 4 |
| | | 4 | | 5 | | | | | |
| | 2 | | | 8 | | | | 3 | |
| 8 | 9 | | | | | 4 | | | 7 |
| | 6 | | | 4 | | | | 8 | |
| | | | | 3 | | 1 | | | |
| 5 | | 6 | 7 | 2 | | | | | |
| 7 | | | | | 5 | | | | |

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Kasa, kontura
- Osagai bakarra duena
- Sei aldeko poliedroa
- Txartela
- Baizik
- Bakoitzak bost
- Azalekoa ez dena
- Erabatekoak, petoak
- Ugatzun haragijalea
- Itsasaldea, itsasertza
- Harpidetza-sari
- Ohean etzan, oheratu
- Entzutea, ospea

| |
|--------------|
| KABUZ |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| HOTSA |

EBAZPENAK

BETI ERATZA ETXE ALDERA PASATZEN DU.

ATSOTITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 8 | 3 | 4 | 1 | 5 | 2 | 9 | 6 |
| 5 | 1 | 6 | 7 | 2 | 2 | 8 | 4 | 3 |
| 9 | 4 | 2 | 6 | 3 | 8 | 1 | 7 | 5 |
| 1 | 6 | 7 | 2 | 4 | 3 | 5 | 8 | 9 |
| 8 | 3 | 6 | 9 | 5 | 6 | 1 | 4 | 2 |
| 4 | 2 | 5 | 9 | 8 | 7 | 6 | 3 | 1 |
| 2 | 9 | 4 | 3 | 5 | 6 | 7 | 1 | 8 |
| 3 | 5 | 8 | 1 | 7 | 2 | 9 | 6 | 4 |
| 6 | 7 | 1 | 8 | 9 | 4 | 3 | 5 | 2 |

- HOTSA
- OHATU
- KUOTA
- KOSTA
- OTOSA
- OSOKA
- SAKON
- BOSNA
- BAINO
- BONUA
- KUBOA
- BAKUN
- KABUZ

ANAGRAMAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 3 | 5 | 1 | 2 | 7 | 8 | 6 | 9 |
| 1 | 8 | 7 | 9 | 3 | 6 | 5 | 2 | 4 |
| 9 | 2 | 6 | 4 | 5 | 8 | 3 | 7 | 1 |
| 5 | 4 | 2 | 7 | 1 | 9 | 6 | 7 | 8 |
| 6 | 9 | 3 | 2 | 8 | 4 | 1 | 5 | 7 |
| 7 | 1 | 8 | 3 | 6 | 5 | 9 | 4 | 2 |
| 8 | 7 | 1 | 6 | 4 | 3 | 2 | 9 | 5 |
| 2 | 5 | 9 | 8 | 7 | 1 | 4 | 3 | 6 |
| 3 | 6 | 4 | 5 | 9 | 2 | 7 | 1 | 8 |

ERRAZA

ONNA.
AIAR, 11. MATO, 12. ERAN, 13. ZALE, 14. IZAR, 15.
GAU, 7. AZTAPAR, 8. GAUTAR, 9. UR, IRAKA, 10. BOL,
ERDI, 3. SINPLEAK, 4. INPRENTA, 5. LEA, 11. 6. IES,
SAKONERA. **GOITIK BEHERA:** 1. KOSK, TUL, 2. USI,
TREN, GARAIARAZI, 7. UDATAR, KATLAN, 8. LITATU,
3. SINPLETU, 4. PRESATI, 5. ELEA, PARAMEZIO, 6.
ESKER-ESKUI: 1. KUSIA, AGUR, 2. OSIN, IZARO,

Tània Balló eta Gonzalo Berger

EMAKUME BORROKALARIEN
HISTORIA OSOA ARGITARA



ISILTASUNA HAUTSIZ

Tània Balló zinemagilea eta idazlea da, eta Gonzalo Berger milizia antifaxistetan espezializatutako historialaria. Memoria historikoaren eta genero ikuspegiaren aterkipean proiektu ugari abiatu dituzte; *Milicianes* (Emakume milizianoak) dokumentala, *Les Combatents* (Borrokalariak) liburua eta, orain, *Museu Virtual de la Dona Combatent* (Emakume borrokalariaren museo birtuala). "Historiak eraikitzeke datuak eskaintzen ditugu eta bizitzak berreskuratzeko memoria bilatzen dugu", horrela laburbildu dute historiaren eraikuntzan egiten duten bidea.

“Gerra Zibilaren kontakizunean emakumeei autonomia politiko falta egotzi zaie historikoki”

Armada errepublikanoko kideek gutxietsi egin zituzten emakume milizianoak eta gerra eta errepresioa igarota, historiak ahaztu egin zituen. Gizonek idatzitako testuetan emakume borrokalariari ukatutako protagonismoa emateko xedearekin argitaratu dute Tània Ballók (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1977) eta Gonzalo Bergerrek (Bartzelona, 1977) *Les Combatents* (Rosa dels Vents, 2020) liburua. Modu zorrotzean ikertuta eta analisi historikoaren bidez, emakumeek merezi duten tokia aldarrikatzen dute.

 LEIRE REGADAS  JORDI BORRÀS

Historia pertsonaletatik abiatuta historia kolektiboa idatzi nahi izan duzue. Zeren, emakume milizianoen profila askotarikoa izan zen arren, bazegoen amankomunean zuten zerbait.

T. Balore demokratiko eta antifaxistak defendatzeko helburuarekin borrokatzera joateko borondateak, keinu politiko horrek batzen ditu. Izan ere, gerran aktiboki parte hartu zuten emakume guztiek ondo zekiten faxismoaren garaipenak Errepublikaren aldarrikapenetik lortutako eskubideen amaiera ekarriko zukeela. Emakumeek armak hartu zituzten jokoan zegoen oso kontziente zirelako.

G. Gerraren eszenatoki maskulinora urratsa egin zuten, eta naturaltasunez okupatu zuten gainera. Hori da batzen dituen haria. Bakoitzak bere historia eta berezitasunak izan arren, faxismoari aurre egiteko borondatea ez ezik, betidanik ukatu izan zaien espazio batean, gerran, parte hartzeko borondatea ere izan zuten.

T. Askotan modu subjektiboan hitz egin da haiei buruz, gutxi zirela edo asko zirela esanez. Baina inoiz ez da

erreparatu ea zehazki zenbat izan ziren. Zerbait batetik abiatuta, bakoitzaren bizipenak eta esperientzia propioak erreskatatu ditugu liburuan.

Gezur eta falazia ugari zabaldu dira urteetan zehar emakume miliziano antifaxistek buruz. Zer interesekin eraikitzen da kontakizun hori?

G. Emakume milizianoen memoriaren erabilera bidegabea ez da frankismoan hasten, aurretik baizik. Emakumearen benetako autonomia arriskutsua zen 1936. urtean oraindik ere matxismoa eta misoginia errotuta zeuden gizartearentzat. Emakumeak frontea uztera bultzatzen hasi zirenean erresistentzia egin zuten, eta orduan moralari eragiten dioten kontakizunak eraikitzen hasi ziren. Frankistek primeran etorri zitzaizkien kontakizun horiek, noski, eta betikotu egin zituzten, geroago ia inork kontrastatu ez dituenak.

Hilabeteak igaro ahala, emakumeak atzeguardiara eta



"Emakumearen benetako autonomia arriskutsua zen 1936. urtean oraindik ere oso matxista eta misoginoa zen gizartearentzat".

zaintzara baztertu zituztela aipatu duzu. Nola azaltzen da emakumeak frontetik kanporatzeko joera 1936-1937 urteen artean?

T. Emakume-boterea binomioagatik. Hizlari eta lider nabarmenak zeuden gerra garaian; Dolores Ibarruri *La Pasionaria* eta Federica Montseny bezalakoak, gizonek zein emakumeek jarraitzen zituztenak. Botere esparru hain indartsua zuten botere-egitura patriarkalak ere hausten zituztela.

G. Emakumeen ausardia horrek lotsatu egin dezake hain ausarta ez den gizon bat, bere maskulinitatea mindu dezake alegia; beraz, "arriskutsua" zen.

Hedatutako kontakizuna da emakume borrokalariaik maitasunagatik joaten zirela frontera, bikotekideekin egoteko.

T. Matxismoan errotuta dagoen errelato tipikoa da. Gerra Zibilari lotutako kontakizunak gizonek eraiki dituztenean, emakumeei egotzi diete autonomia politiko falta hori. "Emakume batek ezin du gerrara joan, ezin du bere erabakia izan", pentsatzen dute. Eta prostitutak zirela edo gizonen atzetik zihoazela esan

ohi da. Argi dago hori ez dela horrela. Ezin da esan kasu guztietan horrela izan zenik, behintzat, ezta dinamika etengabea izan zenik ere.

Prostituzioan aritzea ere leporatzen zieten.

G. Errepublika bera hasi zen zabaltzen frontean zeuden emakumeek infekzio benereok transmititzen zituztela. Emakumeak frontetik desmobilizatzeko kanpaina izan zen, emakumeek frontea uztea bilatzen zen lotsa sozialak eraginda. Frankistek diskurtso hori indartu zuten, ondoren prentsan eta memoria-testuetan jaso zen, eta trantsizio ostean ere jarraitu zuen.

Kanpaina ona egin zuten. Izan ere, emakume milizianoaren figuraren desitxuratzea gaur egun arte heldu da, *Libertarias* bezalako filmek indartuta, garai hori irudikatzen duen film erreferentetzat hartzen dena sarritan.

G. Film hori negargarria da, argi eta garbi diot, barkatu. Norbaiti galdetzen baldin badiozu ea zein ideia duen emakume milizianoei buruz, seguruenik pelikula

horretan ezarritako rolekin lotuko ditu. Emakume borrokalariai egotzi ahal zaizkion aurreiritzi guztiak biltzen dira Libertariasen. Emakume milizianoen eta Gerra Zibilaren oroimenari kalte handia egin dion filma da. Historia ahozko memoria bidez kontatzearen emaitzetako bat da, horregatik da ezinbestekoa ikerketa dokumentazioan oinarritzea.

Historia testuetan emakume milizianoak aipatzen badira, parte-hartze txikia izan zutela edo denbora laburra egon zirela nabarmendu ohi da, propagandaren sinbolismoa aipatzen da, edo frontean parte hartzeko ustezko erabaki despolitizatua...

T. Emakume horiek ez dira inoiz testuinguru historikorako subjektu interesgarriak izan, gutxiengoa eta "anekdota" balira bezala tratatu dituztelako. Baina hori ez da egia, horregatik datuak eskuan hartuta egia esaten hasteko momentua da. Emakume horien motibazioak zeintzuk ziren azaldu eta errealtate hori 1936. urteko testuinguruan aztertu behar da behingoz. Emakume milizianoena sekulako iraultza izan zen! ●



“AHT askoz ere ekologikoagoa da running egitea baino”



“AHTk ez du hainbeste toxina kanporatzen, eta zalaparta askoz ere gutxiago sortzen du”, azaldu du Juanba Txoki ikerlariak eta “Jasangarritasun Handiko Tren txutxu berdea” txostenaren egileak. “Gainera, korrikalariak erabiltzen dituzten zapatila eta kamiseta fosforitoek ingurumenean eta ikusmenean inpaktu handiagoa daukate, ahaztu gabe runner batek Instagramera argazki bat igotzen duen bakoitzean katakume batek bere buruaz beste egiten duela Euskal Herrian. Eta hori ez du inork kontuan

hartzen, e!”. Horri gehitu behar zaio AHT zerbitzu publikoa dela, korrikagintza “gutizia pribatu eta garestiagoa” den bitartean, Txokiren hitzetan: “Demagun treneko txartelak 800 euro balio dituela. Zapatila pare erosteko ere ez daukazu diru horrekin. Kontua baldin bada korrika nahi den lekura hel gaitzkeela, soluzioa erraza da: AHT lineak eraikitzea herrigune eta mendi guztietara, Aralarren bezala. Mugikortasun berdeari ez zaizkio trabak jarri behar. Askatasunaz ari gara. Aberria eta bizitza!”.

Armairuko munstroaren ipuina 2.0



SAREAN ARRANTZATUA

Patxi Villa




IRUDIA: NIKO VAZQUEZ | FACEBOOK

Iñigo, zure laguna



IRUDIA: JAVIER DE IBARRA | FACEBOOK

Laguntasun grafikoa



IRUDIA: ARTEFAKTE | FACEBOOK

piztuko dugu sua?

IRALTZA TXIKIEN AKANPADA

— herri mugimenduen topalekua —

convergencia
de luchas

الاتحاد
قوة

convergence
des luttes



abuztuak 25-29

ARTEA (BIZKAINA)



19,5€

24€



8€



15€

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moye Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45 azoka.argia.eus

